



ARGIA

ADOLFO MUÑOZ (ELA):
**“JENDEAREN
KONTZIENTZIA
BOTERE
BIHURTU
BEHAR DUGU”**

**LAQUEKO GASA: NOLA
POZOITU HERRITARRAK BAKE
SOZIALA HAUTSI GABE**

**KURDISTAN, SARDINIA
ETA KATALUNIAKO KANTU
INPROBISATZAILEAK**

**OSAKIDETZA: MURRIZKETEK
KOLOKAN JARRI DUTE OSASUN
ZERBITZUAREN KALITATEA**



EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO

ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza	
☒ ARGIA	Erabaki gero nahi du!
ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.	
ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7€ BAINO GUTXIAGO	
ARGIA HILERO, HILEAN 4€ BAINO GUTXIAGO	



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 June Fernández
- 20 Angel Erro
- 21 Inma Errea
Edu Zelaia
- 22 Eric Dicharry



Osakidetzako murrizketek kolokan jarri dute osasun arretaren kalitatea.

(ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
SIMONA SKRABEC
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA:
RAUL BAGAJO / ARGAZKI PRESS

SAKONEAN

- 14 | Julia Barberena "Pobre sortu garenok ere badugu urguilua, gero!" / Miel A. Elustondo
- 24 | Murrizketen sintomak osasun zerbitzuan / Gorka Berasategi
- 29 | Fernando Mikelarenarekin hizketan, 1936ko Nafarroaz eta gizarte zibilaz / Koldo Azkune Etxabarri
- 32 | Adolfo Muñoz (ELA): "Hitzarmenak sinatzen dira, baina ez dira betetzen" / Urko Apaolaza Avila
- 36 | Gasteizko euskararen ahotsak / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Herri zapalduen, hizkuntza gutxituen kantua / Dabi Piedra
- 46 | Fikzioa eta kazetaritza elkartzen diren lekuan / Lander Arretxea Bereziartua

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473 163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Emakume errepresaliatu eta erresistenteak: eguneroko lubakiak

Elgetan omendu dituzte eguneroko lubakiak defendatu zituzten emakumeak. Emakume errepublikarrek 1936ko gerran zigor bikoitza jaso zutela esan ohi da: faxismoari aurre egiteagatik eta emakume izateagatik. Oroimenaren zoko ilunean geratu dira jazarpen hura eta etxera ogia eramateko ahalegina. Etxea baitzuten lubaki. Frontean aritu ziren haietako asko: miliziano, erizain, lubakigile, erreportari, zaintzaile. Baina norberak parean aurkitzen duen hori ere bada lehen lerroa, Intxortan, Saturrararen edo beste edozein tokitan, erresistentzia baita balio duena.

Argazkia: Ekaitz Zilarmendi



“Nafarroaren Eguneetik harago urtean zehar beste ekintza batzuk behar dira bideratu”

J. M. Koskarat, Baigorriko auzapeza (Berrian)

argia.eus/multimedia



EHLGk 10 urte

2005eko urtarrilean sortu zuen ELB sindikatuak Euskal Herriko Laborantza Ganbarrak. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako laborariekin elkarlanean laborantza iraunkorraren gune estrategikoa bilakatu da.



Busti web telebista (8. saioa)

Baionako Zizpa gaztetxeaz aritu dira, bertsoa eta generoa uztartu dute Karin Etxeberriren eskutik, “We are herri elkargo” kantatu dute...



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Tortura salatzeagatik atxilotuak

Ane Urkola Agirrezabala

@irrikaz

Tortura salatu eta Estatuko Segurtasun Indarrak “iraintzeagatik” zortzi lagun atxilotu zituzten Burlatan, apirilaren 19an. Chinchilla kaleko komisarian deklarazioa hartu ondoren, aske utzi zituzten, egunean bertan. Mikel Otano, Esteban Gota, Itxaso Torregrosa, Saioa Ibiriku, Julia Ibañez, Angel Mari Erro eta Txelui eta Ibai Moreno dira atxilotuak. Ez dago guztiz argi operazioaren nondik norakoa, baina bai Burlatan tortura salatzeako egindako pintaketa batekin zerikusirik duela.

“Tortura salatzen jarraituko dugu”

Atxiloteten harira, manifestazioa egin zen apirilaren 23an. “Espainiako

poliziak ez du nahi duena lortuko”, adierazi du Gorka Mayo Aznugal auziperatuetako batek. “Atxiloteten atzean dago Espainiako Estatuko segurtasun indarren mendeku nahia, eta Espainiako Estatuari interesatzen zaion kontakizun faltsua inposatzeko nahia”. Atxilotetek ez dituztela “geldiaraziko” azaldu du: “Ez dute lortuko inkomunikazio aldiari Guardia Zibilaren ziegetan jasan genituen torturak salatzeari uztea”.

Mayok gehitu du “jende guztia” konponbiderako pausoak ematen ari den bitartean, Espainiako Estatua uko egiten ari dela orain arte eragindako sufrimenduaren erreparazioari. Gogoratu du Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak zigortu zuela Espainiako Estatua tortura salaketak ez ikertzeagatik.

“Nire seme-alabei ez zaie burutik pasa ere egiten Lanbiden lana bilatzea”

JOSÉ ANDRÉS BLASCO, EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU SAILBURUORDEA

“Nire seme-alabak enplegu webgunetan ikusten ditut etengabe, interneten, eta ez zaie burutik pasa ere egiten Lanbiden izena ematea lana bilatzeko, besteak beste gauza gutxi aurkituko dutelako bertan”, adierazi du Blascok, eta hautsak harrotu dituzte adierazpenok. EH Bilduk eta PSEk sailburuordearen dimisioa eskatu dute eta PPK eta UPDK Lanbideren “porrota” azpimarratu dute. **2016-04-20**



GAZAREN KONTATU GABEKO ISTORIOA

BEHARTUTAKO LEKUALDATZETIK HERIOTZERA

2014ko udan Israelek Gazaren aurka egindako erasoaldian, 2.219 palestinar hil zituztela estimatzen da. Gertaeren alde garrantzitsu bat esan gabe dago oraindik.



Hil zituzten palestinarren erdia baino gehiago 1948ko Nakbak eragindako errefuxiatuak ziren.

GAZAKO ZERREDA

MEDITERRANEO ITSASOA

KHUZA'A SHARQIYA

BEER AL-SABE'

TULKAREM

Yafa

SALAMA

AL-'ABASSIYYA

SARAFAND
AL-'AMAR

RUBIN

AL-LYDD

RAMLA

BURAYER

YIBNA

AQER

BASHIT

ISDUD

BEIT DARAS

HAMAMA

AL-JORA

AL-MAJDAL

BARBARA

HARBIA

AL-FALUJA

SIMSIM

DAMRA

BEIT HANOUN

AL-MUHRAQA

JERUSALEM

HEBRON

Hildakoen
jaioterria

1+ 10+ 25+ 80+

Heriotza-tasa



ERRAUSKETARI BURUZKO 10 GEZUR

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

“Errausketa eztabaidatzea Gipuzkoan eta Europan” jardunaldiak burutu ziren apirilaren 22an Donostian. Bertan aritu ziren adituak: Roberto Bermejo (EHU), Iñigo Suberbiola Unanue (familia-medikua), Gorka Bueno (EHU), Ainhoa Intxaurrendieta (GHKko lehendakari ohia) eta Piotr Barczak (European Environmental Bureau). Hitzaldiotik erraustegiari buruzko 10 gezur ezeztatzeko argudioak bildu ditugu (argia.eus-eko *Gaitzerdi* blogean 15 gezur irakurgai):

1.- “Atez atekoa = ezker abertzalea”. Bermejo: “Europar Batasunak 2016ko konferentzian atera zuten ondorioa izan zen formula egokiena atez atekoa dela”.

2.- “Gipuzkoan itsutu egin gara zaborrakin”. Barczak: “Europan noan toki denetan kontatzen dut Gipuzkoako esperientzia. Eredu da, arrakastaren historia da bertakoa”.

3.- “Ez dago frogatuta erraustegiak minbizia sortzen dutenik”. Frantziako Osasun taldearen ikerketak ondorioztatu zuen erraustegiak direla dioxina iturri handienak. 1997an Minbizia Ikertze-ko Agentzia Internazionalak frogatutzat eman zuen dioxinek minbizia sortzeko duten gaitasuna.

4.- “Erraustegi modernoek ez dute osasunean kalterik eragiten”. Suberbiola: “2004an modernoak ziren erraustegien ikerketek diote minbizi tasak igo egiten direla. Eta ‘moderno’ omen diren erraustegiekin ere istripuak izaten dituzte”.

5.- “Nire herrian joango ez denez, bost axola”. Suberbiola: “Ikerketa ba-

tzuek diote 10 kilometroko erradioan duela eragina eta Zubietatik 10 kilometroren barruan 300.000 biztanle bizi gara”. Eta ordaindu, egungo eta hurrengo hiru belaunaldietako gipuzkoar denek ordainduko dugu.

6.- “Europako herri aurreratuek erraustegia dute”. Bermejo: “1970ean izan zen Europan erraustegien urrezko aroa, baina egun gutxitza jo du”. Barczak: “2020rako Europan hondakinak erraustea debekatu beharko genuke”.

7.- “Erraustegiekin sortzen duten energia berriztagarria da”. Barczak: “Ezin diogu berriztagarri deitu nahi ez dugun zerbaiti. Argi eta garbi esan behar da hondakinak ez direla energia berriztagarri, ez direla hondakinak sortu behar”.

8.- “Erraustegia ekonomia zirkularra da”. Barczak: “Ekonomia zirkularren barruan ez du erraustegiak existitzen Europako batzordearen arabera”.

9.- “Zabortegekin alternatiba da erraustegia”. Intxaurrendieta: “Errausketatik 50.000 tona zepa ateratzen dira urtean eta 10.000 tona erraus toxiko (eta horiek ere zabortegeira bideratuko dituzte)”.

10.- “200.000 tona erretzeko moduko erraustegia behar dugu”. Intxaurrendieta: “Lotsarik gabe diote hazkunde demografikoa emango dela Gipuzkoan, INE, EUSTAT eta denek diotenean gero eta jende gutxiago biziko garela. 2015ean 163.000 tona errefus jaso ziren, baina TMBtik igarotzean 117.000 tona irten ziren. Egun dugun hondakin kopuruaren bikoitza hartuko luke erraustegiak”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Confebask-en marketin operazioa



Juan Mari Arregi

Confesbaskek bere lan harreman eredu berria egin zuen publiko ekitaldi batean. Eusko Jaurlaritzak eta ehunka enpresarik babestuta, lobby patronal horrek egungo errealtate-
ra egokitzen saiatzen ari den eragile sozial modernoaren itxurak egin zituen. Ekitaldi hori, ordea, marketin operazio hutsa baino ez da izan, patronalaren propaganda. Lan harreman berria eskaintzen duela aditzera emanez, bere filosofia eta lan baldintza eskasak inposatu nahi ditu, etekinak pilatzen segitzeko. Patronalek marketin eta propaganda ugari egiten badute ere, ezin dugu ahaztu klase borroka ez dela iragane-
ko zerbait, gure gizartean eta enpresen sakonenean dagoen zerbait baizik.

Patronalaren operazioak hitz egiten du lan harremanetan garrantasuna eta malgutasuna eduki beharraz, baina praktikan langileei behin eta berriz ezkututzen zaie enpresaren egiazko egoera ekonomikoa. Malgutasuna, berriz, lan prekarietate gehiago lortzeko baino ez da erabiltzen. Marketin eta propaganda operazio horren atzean lan harremanen indibidualizatzea dago, negozioak kolektiboaren blokeoa, sindikatuak eta enpresa batzordeak baztertzea. Hala, etekinak lortzeko euren monopolioari egiten diete mesede, prekarietate politikan sakonduz, administrazio publikoak diruz laguntzen dien bitartean.

Egungo egoera sozio-laboralean ikaragarriak dira prekarietatea eta desberdintasunak, eta horrek, logikoki, sindikatuen arteko lehia sortzen du. Enpresariak eta langileak enpresetan elkarrekin bizi daitezen, existitzen den klase borroka hori kontuan hartuko duen elkarriketa behar da, informazioa soilik ez, etekinak eta erabakiak ere konpartitu egiten behar dira.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Aroztegia ez inposatzeko eskatu dute 1.500 bat lagunek

BAZTAN. Aroztegia eta gero zer? plataformak deituta, manifestazioa egin dute Elizondon, Aroztegiako UGPS-a gelditzeko eta Baztango herritarren erabakia errespetatu dadila eskatzeko. "Behin eta berriz erran dugun bezala, ez dugu Nafarroako Gobernuak UGPS bidez egin nahi digun inposaketa hau onartzen eta egitasmo urbanistiko honen aitzinean baztandarrok dugun iritzia zein den jakiteko beharra ikusten dugu, demokraziaren beharra ikusten dugu, herritarren tenorea da", adierazi dute deitzaileek. Baztandar guztiei gogorarazi diete Baztango Udalean sinadura eman dezaketela herri galdeketa egin ahal izateko. Momentu honetan 500 herritar inguruk sinatu dute eta hortaz 200 sinadura inguru falta dira helburua betetzeko.

Barakaldotik Logroñora

Argia
@argia

"Barakaldokoa naiz eta EHUtik Logroñoeko Magisteritzara joan behar izan dut" erreportajea (jatorrizkoa gaztelaniaz) kaleratu dute *El Correo* egunkarian eta zeresana eman du. EHUn Irakaskuntza gaztelaniaz ikasten duten hainbat ikasle kexu dira artikuluan, euskarazko B2 maila ziurtatu behar dutelako EHUn ikasteko. Leioako campuseko ikasleek umoretsu erantzun dute:

Barakaldokoa naiz eta daukat paro obrero, horregatik Logroñora noa ni egunero. Euskaraz tutik ez eta gogorikan zero *Correoi* elkarrizketa eman diot gero. Ahoa bero-bero hego haizeak ero Espainian bezero ez gutxio espero eta irakasle ni Salaman can edo.

DONOSTIA 2016



14.740

euroko kostua izan zuen Donostia 2016ko inaugurazioan zerbitzatu zen catering-ak. Tabakalerara gonbidatutakoek dastatu zuten: gonbidatuak 1.478 izan arren, 679 joan ziren azkenean.

800.052 euro gastatu ziren inaugurazio ekitaldian.



EMAKUNDE SARIA

Hitzek Emakume Baserritarren Elkartek eta Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sareak jaso dute Emakunde Saria, "Emakumeen Ahalduntzea, Berdintasunerako Gakoak" jardunaldien baitan.



BRETAİNIERAREN ALDE KORRIKA

Nantesetik gertu dagoen Sant-Ervlanen hasi, eta Lokoal-Mendon bitartean egingo dute bretoiaren aldeko korrikaldia, Redadeg izeneko, apirilaren 29tik maiatzaren 7ra. Denera, 1.700 kilometro.



TRANSEXUALITATEA LANTZEKO

Transexualitatea lantzeko lehen material didaktikoa argitaratu du Chrysallis elkarteak. Haur transexualen gurasoek osatzen dute elkarte eta ikastetxeetan gaia lantzeko proposamena da, sei fitxatan oinarritua.

A-28ko greba eta borroken konbergentzia



Xabier Letona

@xletona

GREBA ETA MOBILIZAZIO eguna bizi-ko da osterarenekin 28an Frantzia osoan. Helburua: El Khomri legea edo François Hollanderen lan erreforma atzera botatzea. Inkesten arabera, Frantziako populazioaren %75 legearen aurkakoa da. Funtsean, Espainian PPK bultzatu zuen lan erreformaren oso berdintsua litzateke eta berau egiteko arrazoiak ere bai: lan merkatuak ez diela erantzuten egungo merkatu globalaren erantzukizunei eta, beraz, malgutasuna behar duela.

Malgutasunaren muina da langileak kaleratzeko arauak erraztea, langileen sindikatu mailako antolaketa ahultzea eta, funtsean, enpresarien erakundearen boterea handitzea lan harremanen esparruan. Orain arte, soldaten jaitziera eta prekarietatea dira halako lan erreformek langileen artera ekarri dituzten ondorio nagusiak.

Mobilizazio hauei loturik, alabaina, Nuit Debout (Gaua Zutik) mugimendua sortu da, lan erreforma gerarazteaz gain, askoz urrutirago ere begiratzen duena. Parisko Errepublikaren plazako ikasle eta hainbat gizarte sektorearen aliantzak, neoliberalismoaren aurkako borroka makulu, gizarte eraldaketari begiratzen dio.

Sindikatuaren ohiko borroken aurrean eta greba orokor isolatuen mugez jabetuta, zerbait jarraikorrako bultzatu nahi dute. Zer eta nola ez dago argi; oraingo martxoaren 31n sortutako emariari norabide bat ematea ez litzateke gutxi. Espainiako M15ekin parekatu dute askok Nuit Debout, baita AEBetako Occupy mugimenduekin, eta bietatik desberdina bada ere, proiektioari begira behintzat itsasoz bestaldekoari begiratzen bide dio gehiago. AEBtan Bernie Sanders moduko hautagai demokrata batek sozialismoaren alternatibaz hitz



egitea eta horrekin lortzen ari den sostengu zabala guztiz iraultzailatzat jotzen ari da. Occupyren errepikak ere badira halakoak.

Podemosen bideaz ere asko hitz egingen da, baina oraingoz ez dirudi Nuit Debouten etorkizunaren hurbilean halako metxarrik piztuko denik. Esaterako, hauteskunde eta alderdien lehiatik harago jo nahi luke mugimenduaren bultzatzaile intelektuala den Frédéric Gordonek. Frantziako ezkerreko erreferentzia garrantzitsua den Gordonek, mugimenduari indartsu eta zabaletan sinesten du aldaketa sakonei begira; horretarako, borroken konbergentzia ezinbestekoa da bere ustez. Horixe da, hain zuzen, Nuit Debouten baitan gehien zabaldu den kontzeptua, borroken konbergentzia, eta bere gerizpean ari da hazten gaueko suminduen borroka. Osteguneko mobilizazioa bere lehen geltoki handia da mugimendua sortu zenetik. Maiatzaren 3tik aurrera legearen eztabaidari

ekingo diote Asanblea Nazionalean eta protesta ere biziki areagotu eta zabalduko dela pentsa liteke. Beste hainbat plazetako garra moduan, lehenxeago edo geroxeago itzaliko da Nuit Debout ere. Utziko duen arrastoaren norabidea da oraindik garbi ez dagoena, baina utziko duela ez da zalantzarik.

ESPAINIAKO ESTATUAN mugimendu politikoa kalera baino instituzioei begira dago. Podemos eta IUren aliantza nahiko seguruaren aurrean PSOEek azken mugimendu zakarren bat egingen ez badu –boterea PP eta C's-en esku utziz–, ekainaren 26an hauteskunde orokorrak errepikatuko dira. Alderdi nagusienaren tresneria horri begira dago abenduaren 20az geroztik; gainerako guztiei, hauteskunde berrien gurutz-bidea sofritzea egokituko zaie. Eta azkenean, jakingo dugu ea Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak egun horretan egingo diren ala ez. ■



Lacq: kea, 136 heriotza eta agintariek gordetako ikerlan epidemiologikoa



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Mende erdiz, Biarnoko Lacqeko biztanleak kutsatu dituzte gas hobiak ustiatzean. Bailaran 1968tik 1998ra artean heriotza tasa %14 handitu zela demostratu zuen Bordeleko unibertsitateak, baina agintariek txostena ezkutatu eta ez diote jarraipenik eman ikerketa epidemiologikoari. SEPANSO elkarte ekologistak salatu berri du eta gordetako agiriak interneten jarri.



Lacq esanda euskalduna oroitzen da *Pirinio frantsesean* eskiatzera doalarik, edo Lourdeseko Andra Mariarengana errones, Paue aurretik autopistatik ikusten diren gas tximiniez. Orain gehienak itzalita dauden arren, duela urte gutxi estampa berezia egiten zuten sua dariela, Biarnoko artasoro eta behiz betetako larreen artean, Zuberotatik 20 kilometrora.

1951n aurkiturik, lurpean datzan gasa 1959an hasi ziren ustiatzen orduko zalaparta mediatiko handiarekin, 1965etik aurrera gas-hodietan zabal-tzeko Frantziako hirietako etxeetaraino. Inbertsioak ekarri zituen gasak Biarnora, dirua usainak berotu zuen makal zebilen Paueko ekonomia.

Hogeita bost urte iraungo zuen zoramenak, 1987rako produkzioa motel-duta –orduan inork ez zuen aipatzen erregaien *peak* edo gailurrik– Parisko gobernuak inguruko industriaren birmoldaketa antolatu behar izan zuen. 2013an amaitu zen azken gas hodiaren produkzioa. Orain Total multinazionalak dio bertan esperimentatzen dutela klima hondatzen duen gehiegizko CO₂a metatzea gas hobi agortuetan.

Hasieratik Lacqeko urre kirastunak ere bazuen ipurdian zuloa: %16 hidrogeno sulfuro (azido sulfidriko) eta %12 CO₂. Hain gas korrosiboa ezin zenez etxeetan erabili, Totalek teknologia oso bat antolatu zuen metildietanolamina erabiliz egunean milioi bat tonari sufrea erauzteko. Baina edozein arriskuk zirur-

dien pazientziaz eramateko modukoa, Biarno XX. mende amaierako Eldorado berria bihurtu behar zuenez.

1960an *Paris-Match* astekariak erreportajea eskaini zion Lacqeko mirariari, Maurice Jarnouxen argazkietan erakutsiz –internetek ikus daitezke– herriko agintariak eskolako haurrei banatzen maskarak, herritar guztiak etxean bezala kalean edo ostatuan beti aldean daramatzatela... Gasa fintzeko teknikak puntuan jarri bitartean, edozein unetan egin baitzezakeen ihes %16an sufrea zeraman lurrin hilgarriak. Baina munduak *Paris-Match*en erreportaje txokantea hurrengo asterako ahaztua zuen.

Urte luzez egunean 700 tona sufrea isuri zuten Elf eta Totalen birfindegiek. Eta 2002an, Bordeleko medikuntza fakultateko ISPED Osasun Publikorako Epidemiologia eta Garapen Institutuak ikertu zituen 1968tik 1998ra arte isuriok herritarrei eragindako kalteak, aurkitu zuen 31 urtetan Lacq eskualdeari zegokiona baino 136 pertsona gehiago hil zirela.

60.000 lagun inguru biltzen duen Lacq eskualdea ikertu zen hiru zirkulu kontzentrikotan banatuta, bakoitza 22.000 biztanlekoa. Emaitzetan ikusi zenez, zenbat eta kutsaduraren iturritik hurbilago orduan eta gehiago ugaritzen ziren heriotzak. Gainera, denborak larriagotzen zuen arazoa: lehen hamarkadan arnasbideetako kantzerak %34 ugaritu ziren baina 1990etik aurrera heriotzen kopurua %56 handitu.


Kantzerren kasuan, gas industriaren gertueneko zonan 31 urtetan heriotzak pasatu ziren beste zonaldeetakoak baino gutxiago izatetik %30-%40 ugariagoak izatera.

Nola ez zuen horrek eskandalurik eragin? SEPANSOko Michel Rodesek idatzi duenez, Gobernuak bezala lekuko hautetsiek nahiago izan zuten afera isiltasunean lurperatu, ondorioak larriegiak zirelako iritzi publikoaren aurrean. Baina 13 urte beranduago, 2015ean, Frantziako Kontu Auzitegiak bere txosten batean bildu du 2002an Bordeleko unibertsitateak esana: 136 heriotza gehiegizko gertatu zirela 65 urtez azpiko jendeen artean, heriotz tasa %14 handituz. Eta ekologistek gaiaren inguruko *omerté* giroa hautsi nahi izan dute bi agiriok interneten plazaratuz.

Ez ikertu, jendea ez asaldatzearren

Kontua da ikerlanari agintariek informazioa herritarren begietatik ezkutatzear gain osasun arriskuaren ikerketari jarraipenik ez diotela eman 1998tik aurrera. Aldiz, Frantziako Estatuak eta industriak BURGEAP konpainiari –besteren artean zentral nuklearrak desmuntatzen berezitua– enkargatu diote aztertzea zer arrisku daukaten herritarren osasunean Lacqen isuritako 140 edo gehiago kutsagarrien arteko bostek.

Gaur Lacqeko lurpeko gas gehienak ahturik, airera ez dira jaurtitzen garai zaharretan bezala urtero 800 tona sufrea eta 900 tona fluor. Baina eskualdean



1960an Lacqeko ikastetxeko zuzendari Andre Cazetienek ateratako argazki txikian, mutiko bat eskolara iristen: bizkarrean dakar, maletatxoaz gain, gas isurketetatik babesteko maskara bere zorroan gordirik. Gasak hobian bertan %16 sufre zeukanez –artean fintzeko teknologia antolatzen ari ziren Total eta Elf– istripuz ihesi bat gertatuz gero arnaste hutsarekin hil zezakeen pertsona. 'La Republique des Pyrenees' egunkariaren argazki handian, Lacqeko industrigunea ketan 2016 hasieran; inguruko herritarrek kexu azaldu dira azken boladako ihesek eragin dizkieten kalteengatik.

lanean darraite SEVESO katalogatutako 23 enpresa handik eta denetara badi-ra 210 kutsadura iturri baino gehiago. ISPEdek ikerlana entregatuz geroztik kutsagai batzuk asko ugaritu dira: konposatu organiko lurrunkorak, hidrokarbuero aromatiko poliziklikoak eta abar luzea.

Ikertzen jarraitzea proposatzen zuen 2002an Bordeleko unibertsitateak. Aldiz, Biarnoko ARS Eskualdeko Osasun Erakundeak –haien Osakidetza-Osasunbideak– adierazi zuen: "Ikerketa epidemiologikorik egitea baztertu egin da, gizartearen eskaririk ez dagoelako, erabilgarritasuna garbi ez dagoelako eta garestia delako". ARSeko goi funtzionarioaren beste argudio bat: "Horrela-ko azterketa bat abiatzeak bake soziala urratzeko arriskua pizten du". Eta perla ilun hau: "Gogorarazi behar da Lacq

inguruan nahiko jende gutxi bizi dela". Herritarren biziak industriari sakrifika-tzeko formula lotsagarriagorik...

SEPANSOk frogak internetez zabalduraren, ez Parisko gobernuak eta ez Biarnoko hautetsiek ukitu nahi izan dute pozoinketaren afera. Bostek bakarrik sinatu dute idatzi bat eskatuz gobernuari ikerketa epidemiologikoari segida emateko, Laa Mondrans, Artix, Lasseube eta Billère herrietako zinegotzi banak eta David Grosclaude kontseilari erregiona-lak, bai, Okzitaniako hizkuntzarentzako gutxienezko laguntzak lortzearen gose greba egin zuen Grosclaude hura bera.

2016ko martxoaren 6an Paueko *La Republique des Pyrenees* egunkariak zabaldur du: "Kiratsa Lacq bailaran: auzotarrak berriro eztulka dabilta". Eta aurreraxeago: "Herritarrek kexu dira usain oso bortitz horiek osasunean dauzkan

eraginez: buruko minak, goragaleak, azaleko eta begietako erresuminak, arnasketa arazoak...".

Egunkariaren informazio berean Induslacz konpainiak herritarrei jakinarazten die egun batzuetan luzatuko dela beren tortura, "BP4/3 tximinian" su lama ikusiko dutela gau eta egun, galdara bat garbitzearen gasak isuri beharra dagoelako. Jende ahulentzako kalte.

SEPANSOk salatzen du: "Administrazioaren, hautetsien eta industriaren arteko konplizitatea dago auzitan. Orain artean ez dute egin hau besterik: denek batean kantatu 'arrisku industrialaren kultura' daukagula eta urtetik urtera bata besteari pasatu Lacqeko gasaren dossier beroa".

Baina goi funtzionario hark esan bezala, zertarako ikertu, egia jakiteak bake soziala urratu lezake eta. ■



zuri begira



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Julia Barberena, neskatoa

«Pobre sortu garenok ere badugu urguilua, gero!»

Telebista saioan ikusi genuen, bere baitako okinaz solas. Zugarramurdin sortua, Bizkaiko Orozkon bizi dena. Jon Abrilek dokumentatu digun neskato lanbidean ibilia. Inondik ere, ogiaren barneko mamiak behar du okinaz bertzeko istorio-historiarik.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Herri people saioan ikusi zintugun, telebistan. Erranen didazu zer egiten duen Zugarramurdiko emaztekiak Bizkaiko Orozko honetan?

Neskato nintzen...

Non, neskato?

Donibane Lohizunen, Epaltzatarrean. Inondik ere, Orozkotik helduak ziren, etxea baitzuten hemen, lehendik. San Pedroetarik abuztuaren hamabortz arte heldu ziren. Hemendik Lekeitiora joan ginen, urri arte edo, eta gero, berriz Donibanera. Orozkora etorri ginen, erran bezala, San Pedro bezperan. Neskato ginenok izaten genuen hamabortz egunetarik domeka arratsalde bat libre. Nagusi-etxeakoandreak ez ziren etxean, baziren umeak, eta bazen kozinera elegante bat, Leandra izena zuena. Horrek erran gintuen: "Ni egonen naiz haurrekin, ez zaitezte berandu etorri. Zoazte!". Jauregi auzoan ginen Orozkon, eta Muruetara joan ginen, sei kilometroko bidean, eta han ezagutu nuen Pablo Azkoaga jauna, eta horrela heldu nintzen Orozkora.

Epaltzatarrak jende ezagutua da Euskal Herrian.

Bai, hala da. Doña Maria nafarra zen,

Iruñea gaindikoa uste dut, baina jauna, Don Domingo, bizkaitarra zen, lekeitia-rrak. Adan de Yarzaren familia dira. Nire senar Pablok dioenez, Adan de Yarzak ekarri zuen pinua Bizkaira, 1870 aldera.

Gaske zinen, neskato lanean.

Hemeretzi urte banituen, baina lehenbizian hamabortz urterekin joan nintzen neskato Frantziara. Ordu artio Zugarramurdin bizitua nintzen. Telletzeko alaba naiz ni. Telletxea du izena gure etxeak, eta han da oraino. Baginen momentu batez hamahiru lagun: aita, ama, zortzi ume, aitatxi-amatxiak eta iloba bat. Etxe handia da. Baziren oiloak, baziren lau behi, baziren ardiak... eta asto bat ere bazen. Seigarrena nintzen etxean, ni baino lehenago bortz mutiko baziren.

Lana egitea gertatu zitzaizun baserrian?

Baiiii! Baina nik ttiki-ttikitarik banekien lanera joan behar nuela neskato. Baziren guardia zibilak Zugarramurdin, eta haien umeekin ibiltzen nintzen. Ez ziren hain gaizki bizi han... Konprenitzen duzu zer erran nahi dudan?

Ongi bizitzeko manera egiten zutela handik eta hemendik zerbait maneiatu...

Zuk erran duzu, ez nik! Bertze mane-

ra bat zen. Izaten zituzten gabardinak plexiglasekoak, transparenteak. Orain parasolak diren bezala, orduan gabardina zen moda, eta guardia zibilen umeek bazituzten. Eta nik ere nahi nuen... Zazpi-zortzi urte izanen nituen, ez gehiago,

Julia Barberena

1941, Zugarramurdi

Neskato izan zen ezkondu artean. Donibane Lohizune eta Garazi, Antilla Txikiak eta Paris ibili zituen, inoren etxe eta haurrak zuzentzen. Tartean, Txomin Epaltzaren sendian, Jean Ibarnegarairanean eta Fenwick-en alargunarenean zerbitzatu zuen. Orozkon da 1964az gero, bertara ezkondu. 1978an etxeko ogia saltzen hasi zen, eta telebista ikusi dugu oraindik orain *Herri People* saioan, *Zazpi baserri* izeneko saioan. "Baserritarra eta okina" zioten Juliaren gainean ari, baina telebistan kontatua baino aunitzez gehiago da. "Zuri kontatzen ahal dizut, baina ez da publikatzekoa. Ez du merezi". Gordean dira hau, hori eta hura...





eta aitak erran ninduen: “Beha, Julia, hemen bizitzen baldin bazara izanen dituzu arropa arrunttak, ez zaizu faltatuko ez jatekoa ez fitsik, lan eginen duzu eta biziko zara ongi, baina nahi baduzu plexiglaseko gauzak, joanen zara neskato, eta irabaziko duzu dirua, eta orduan izanen dituzu bertze gauzak, hemen izanen ez dituzunak”. Zortzi urterekin nik banekien hori horrela izanen zela. Eskola eta bertze gauzak ez zitzaizkidan interesatzen. Nik neskato nahi nuen.

Noren bidez joan zinen neskato? Nora?

Erranen dizut. Amak bazuen bigarren kusia bat, moja, Gurutzeko alabak Frantzian, eta hori dela medio joan nintzen Biarnoko Salies-era, frantsesez ikastera eta lanean. Urte bat egin nuen han, eta berehala ikasi nuen frantsesa, ongi gainera.

Nola heldu zinen Epaltzatarrenera?

Hori bertze istorio bat da. Gero jesuita bat ere ezagutu nuen, eta hark erran ninduen ea zertako ez nintzen joaten Donostiara erizain ikasteko. Ezagutzen zuela familia bat eta hau eta hori, eta “Zertaz ez?”, erran nion ene buruari. Baina nagusia berehala hil zen. Etxeberria bat zen familia, psikiatra. Han bi urte egon nintzelarik, ez erizain ez deus, lanean. Hortik Lekeitiora joan ginen. Baziren lau emazteki etxean: hiru ahizpa, batto gaixoxkoa, eta amatxi zaharra. Amatxi zaharra hil zen, han ginelarik. Haien jostailua nintzen. Joaten nintzen jostera, eta han ezagutu nuen emazteki bat, Justa izena zuen, eta erran nion ez nintzela kontent eta nahi nuela joan

hortik. Eta erran ninduen Epaltzatarrekin eginen zuela solas, zertaz emazteki hori haiekin egona zen neskato. Horrela joan nintzen Epaltzarrengana. Urte bat egon nintzen han.

Urte bat.

Bai. Nik ingelesa ere ikasi nahi nuen, eta izan nuen manera ingelesa ikasteko, baina ez Ingalaterran, Antilletan baizik.

Antilletan ibilia zara neskato?

Bai. Juan Ibarnegarai? Aditzea izanen duzu. Haren alabarekin egon nintzen urte bat, exkaxa.

Istoriaa kontatu behar dizut dena?

...

Galdera bat egin dizut: nahi duzu istorio guztia kontatzea?

Antilletako istorio hori jakin nahi dut, bai.

Antilla Ttikietan egon nintzen urte bat. Hemeretzi urterekin joan nintzen. Juan Ibarnegarai ezkondu zen ez sobera gaztea. Lau alaba izan zituen. Alaba zaharrenearekin joan nintzen Antilletara. Bazuen haur bat, eta bertze baten esperantzatan zen. Kusia batek ezagutzen zuela eta badakit zer eta ez dakit zer, badakizu nola izaten diren istoriook, eta erran ninduen: “Zu, Julia, nahi duzu joan?”, eta nik baietz. Donibane Garazin egon nintzen haiekin, Antilletara baino lehen. Bazuten han etxe bat, handia, gaztelu moduko bat iduri zuena, lau dorreekin. Eta bazen inskripzio bat etxearen ate printzipalean: “Lehen, hala. Orain, hola. Gero, nola?”.

Zaharra

“Gaztea nintzen, baina nik beti zaharra nahi, lehengo gauzak behar izaten nituen. Eta baserria, berdin: nik baserria maite dut, etxe zaharrak maite ditut, ez berriak. Ez dakit zertaz, baina beti horretan izana naiz”.

Patata mamorroa

“Sartzarrean ehun urte aitzinatuak ginen. Amatzik alemanak ikusi ere ez zituen nahi. Patata mamorroa ez omen zen Bigarren Gerran alemanak etorri arte. Ordutik hona helduak omen dira. Amatzik hala erraten zuen: ‘Aleman zikin horiek!’ Amatzik joaten zen patata hartzera, eta gero, harri baten gainean tta-tta-tta-tta!, denak hausten zituen. Ez zuen pozoirik botatzen. Etxe hartan aski ongi jaten zen, eta beti etxekoa. Erosi egiten ziren: kafea, arnoa, azukrea, olio eta, noizean behin, lata bat sardina. Bertzenaz, dena etxekoa zen”.



Donibane Garazin izan zen hori, Antilletara baino lehen.

Bai. Aski ongi izan nintzen Donibane Garazin etxeko andrearekin eta deneekin. Baina hartu genuen barkua Vigon eta joan ginen Antilletara. Hamabortz egun, ongi. Eta Antilletan ere, ongi ni. Arras leku diferentea da Antilla, baina han denbora beroa, eta nik denbora beroa maite dut, erran behar dut egia. Eta gustatu zitzaidan aunitz.

Denbora beroa maite zuk.

Bai, eta gainera ongi nintzen. Irla bat zen hura, 35.000 lagun, eta 300 edo ginen xuriak. Ailegatu nintzelarik denek bazekiten nor nintzen, denek solas egiten zuten nirekin, agurtzen ninduten, izugarri goxoak ziren nirekin... Bazen militar bat erretiratu, bazekien frantsesa, eta ikusten ninduelarik, beti zen nirekin solasean... Ongi!

Ez dut buruan sartzen ahal. Zugarramur-diko xokotik Antilletako bazterrera.

Hazia naiz Euskal Herrian, eta badakizu nola bizituak garen gehienez hemen: fedea. Neskato nintzelarik portatzen nintzen gurasoekin bezala. Ez nuen libertaterik hartzen, ez nuen behar ere. Arrisku aunitz izan ditut bizian, eta lan-jerra handiak, baina behin ere ez dut makurrik izan: norbaitek bertze aldetik zaintzen nau. Eta zaharrago eta seguruago naiz.

Hitz beste eginez, nahi baduzu: neskato bizimodua gogorra da?

Bai, bakarrik zarelarik. Etxeko zakurra

zu baino inportanteagoa da, nire denboretan beti. Bertze gauza bat: nik hori ere badut, ona edo txarra, baina nagusia nagusi, eta ni neure lekuan. Etxe batean egin dudalarik lan, zerbitzatu naiz ahal bezain ongi, baina partitu naitzelarik, agur!, ez da nire lekua. Ez dut erran nahi nire burua gutxiago sentitzen dudala, ez. Bakoitza bere lekuan: aberats sortzen dena, aberats, baina pobre sortu garenok ere badugu geure urguilua, gero! Neskato zaren etxean umeak baldin badira, bada bertze gauza bat: umeak ematen dizute, eta zuk ere ematen diezu, hartzen duzu eta ematen duzu, hor ez zara hain bakarrik. Suertatu nintzen Parisen.

Parisen? Antilla Ttikietan zinena, Parisen gero?

Bai, Antilletarik etorri nintzen gibelera, jakina. Izan ziren istorioak eta etorri nintzen. Etxekoandreak erran ninduen: "Badakit ez naizela ongi portatzen zurekin...". Eta erran nion: "Beha, andrea, ez da zure kulpaa, ez da nirea, baina elkarrekin ez gara egoten ahal". Bera, bera zen, eta ni, neu. Niri norbaitek solas egiten baldin banau, nik emanen diot arrapostua. Antilletan jendeak maite ninduen, eta lagundu ninduten etortzen. Han, dendak ziren okindegia, drogeria, bidaia-agentzia... Eta sartu nintzen agentzian, eta lagundu ninduten.

Handik irten zinen.

Bai. Barbadosen hartu nuen barkua, Montserrat izena zuena. Etxekoandreak bazekien banentorrela, eta egun hartan

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



Gozatu euskaraz liburategietan!...

• ALDABE

Eraiki zure argazki makina lata batekin
Latatxo (lantegia)
Maiatzak 7, 09:30; 8-13 urte

• LAKUA

Boli bili boli
Pantzar teatro (txotxongiloak)
Maiatzak 7, 12:00; 2-5 urte

• PILAR

Boli bili boli
Pantzar teatro (txotxongiloak)
Maiatzak 7, 18:00; 2-5 urte

• SALBURUA

Kikili Salda
Amaroa kultur elkarte
Maiatzak 3, 18:00; 4-8 urte

Oihaneder euskararen etxea

Neskatoak

Dokumentala

Maiatzak 12, 19:00

Udaberri jaia

Hizkuntza gutxituen musitaren II. jaialdia

Maiatzak 14, 20:30etik aurrera

Cultura vasca VS Euskal kultura

Ibai Iztueta

Maiatzak 19, 19:00

Maialen Lujanbio

SolasALEAn

Elkarrizketa irekia

Maiatzak 27, 19:00

Poetak maiatzean

Andorren

Javier Fernandez & Itziar Rekalde

Maiatzak 4, 19:30

Nola balitu behar zuria

Bide Ertzean & Metrokoadroka

Sormen Laborategia

Maiatzak 11, 20:00

Itxakizuna

Itu banda

Maiatzak 18, 20:00

Kapital publikoa

Jose Luis Otamendi

Maiatzak 25, 20:00

Principal Antzokia

Bakarriketak: futbolisto baten

konfidentziak

Zuhaitz Gurrutxaga

Maiatzak 5; 20:30

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ez zuen fitsik erran. Egin nuen maleta, bi minutuko istorioa, eta prest nintzen. Egun hartan etxekoandrea hondartzara joan zen haurrekin. Itzuli zelarik, erran ninduen: “Egin behar duzu hau eta hori eta hura, hainbertze gauza, eta gero, prestatu zaitez, zertaz hiruretan hartu behar duzu abioia”. Eta nik, orduan, erran nion: “Lehenbiziko prestatuko ditut nire gauzak eta gero, astia baldin badut eginen ditut bertze gauzak”. Eta nagusia: “*Stupide!*”. Kar, kar, kar... Ez nien kasu fitsik egin. Haurrak niri lotuak, nirekin. Ezagutzen ninduten. Horrela partitu nintzen. Aireportura polizia etorri zen, galdetuz ea kexarik banuen, zertaz oihiak entzun zituzten kanpoan. Urri nintzen, baina ongi zaindua. Hurrengo etxean Parisen izan nintzen. Fenwick jasogailuak? Aditzea baduzu?

Fenwick, bai, horiek ere ongi ezagutuak dira munduan.

Haiekin egon nintzen neskato. Nagusia hila zen, etxekoandrea bere gisa bizi zen, eta bazituen bi ume ttiki. Zazpi egun nintzen haiekin, baina ez nintzen gaizki, ezta pentsatu ere, aski ongi. Muttikoa hiru urtetara joaki zen, ea etxe hartako nagusia nor zen galdetzen zuen. Ttikia zen, baina jauna zen jada. “Nagusia zu zara, eta ni neskatoa, baina zu ttikia baitzara, nik erraten dudana egin behar duzu”. Orduan bazen moda gogorra hurrei gibela eta espinakak ematekoa. Muttikoak: “Nik ez dut balttere maite espinaka!”. “Nagusia baldin

Azken hitza: Orozko

“Gizon bat ezagutu nuen, eta segur nintzen honat behin ere ez nintzela etorriko bizitzera. Hemen gelditu naiz, Presatxu etxean”.

.....

bazara gutxixeago jan behar duzu, baina jan behar duzu!”. Ongi bizitu nintzen haiekin. Azkenean erran nion etxekoandreak: “Aizu, zertaz ez dituzu eramaten haurrak nirekin Zugarramurdira?”. Eta baietz, eta Zugarramurdira egon nintzen borts hilabete. Ezkontzeko bezperan utzi nituen.

Ezkontzeko zinen bezperan?

Bai. Haurrak uztea niretzat izan zen gauza bat... Eta oraino... Jendeak erraten du: “Maite dituzu umeak, zuk erditu dituzunak”. Baina ez da horrela: umeak maite dituzu, zuk hazten baldin badituzu. Erditzea, ez erditzea, hori ez da egia. Nik oraino maite ditut haur horiek. Badituzte 54-55 urte. Maite ditut oraino haur horiek, egiaz, gainera.

Noiz utzi zenuen neskato lana eta ezkondu zinen Orozkora?

Mila bederatziehun eta hiruretan hogeita lauan. Ume haiek utzi nituen Donibane Lohizunen, ezkondu nintzen, eta

biharamunean etorri nintzen Orozkora. Ezkondu nintzelarik, ez duzu pentsatzen: amodioa eta hau eta hura, ez duzu gehiago pentsatzen fitsik. Eta, gainera, uste duzu zure gizona dela jainko. Lau urteren buruan ohartu nintzen bertzeak bezalakoa zela. Orduan, onetsi behar duzu nola diren gauzak, ez da bertzerik.

Eta hasi zinen ogi egiten halakoren batean.

Baratzekaria ona egiten nuen, etxea panpindua nuen, ongi arrimatua. Emazteki bat nintzen, ilusioarekin. Nik ez ditut konprenitzen oraingo emaztekiak, feministak eta bertze. Emaztekiak badu gizonak baino gauza aunitz gehiago. Emaztekoa zara, eta ama zara. Gizonak umeak egiten ditu, baina ez du titirik ematen. Ramiro Pinilla ezagutzen duzu? Gustatzen zait aunitz gizon hori. Behin aditu nion telebistan erraten: “Emaztekiak ez du fitsik demostratu behar, bera da!”. Nire gizonarekin bizi naiz, gustu aunitz zerbitzatzen dut, baina berak ere ematen nau bere gauza. Zuk ematen duzuna gogoz ematen duzu, eta hartzen duzuna, estimatzen duzu.

Ogia...

Hemen ikasi nuen ogi egiten, Orozkon. Baina Zugarramurdira, haurra nintzelarik, nork egiten zituen fildakeriarik handienak? Beti Juliak. Telletxean bizi nintzen, baina amatxi bizi zen beste baserri batean, Sartzarrean, eta hara joaten nintzen. Han, aitaren arrebak, izebak, egiten zuen gasna, egiten zuen ogia, baratzekariak... Zen emazteki bat, bera. Aunitz joaten nintzen amatxirenera, eta aski gustura egoten nintzen haren etxean. Eta ezkondu nintzelarik honat, maite nuen etxe-ogia. Umeak hazi ziren, baina bertzerik behar nuen. Auzoko emazteki batekin hasi nintzen ogia egiten, lehenbizi etxeko, baina 1978an joan ginen Gernikara.

Etxeko ogia salgai. Telebistan kontatua duzu geroko istorio-istoria.

Behin ikusi dut programa, eta ez dut gehiago begiratu!

“Baserritarra eta okina” zioen telebistak zure gainean, baina bada bertzerik Julia Barberena Irigoienek bizi.

Zuk uste duzu? Menturaz, hala izanen da. Ni ez naiz ohartzen baina gauza aunitz pasatzen dira nire buruan. Beharrik ez naiz ohartzen! ■

Emazteak

Cáceresen egon berri naiz, lesbien ikusgarritasunaren aldeko jardunaldi batean. Partaideek euren burua aurkezten zutenean, askok honela egin zuten: “Teresa naiz eta nire emaztea Pura da”. Hau da, aldamenean zeukaten emakumearekin ezkontuta zeudela harro adierazten zuten. “Emaztea” eta ez “bikotekidea” esaten zuten. Joera bitxia iruditu zitzaidan. Nire inguruko lesbianak ez dira ezkontza zaleak, eta (arrazoi praktikoaren aitzakiaz) ezkondu direnek ez dute lau haizeetara zabaltzen.

LGTB mugimenduan bi joera bereizi ohi dira. Alde batetik, integrazioa eta normalkuntza bilatzen dituztenak; horien artean ezkontzeko eskubidea lehenetsi dute, berdintasunaren ikur sinbolikoa delakoan. Beste korronteak gizarte heterosexistaren onespeneri uko egiten dio, baita gizarte horren arauak ere; familia tradizionalaren eredu barne. *Queer* (arraro) irain gisa erabiltzen zen Ameriketako Estatu Batuetan, eta erresistentzia estrategia bezala iraina bereganatu zuten gay, lesbiana eta transexualen aktibismo austartak *Queer* mugimendua sortu zute. Gurean *transmarikabollo* erabiltzen dugu, adierazteko ez dugula “normalak” eta “errespetagarriak” izan nahi.

Bilboko lesbiana feministen artean mugitzen naiz ni, *queer* korronte horri begira, eta LGTB mugimenduaren instituzionalizatzearen kontrako mesprezua edan dut. Espainiako LGTB elkarteak batzen dituen federazioari, FELGTB, *flagélate* deitzen diote/diogu, egozten diogun kutsu kontserbadoreari iseka eginez. David Cameron Erresuma Batuko presidentearen hitzak beti ditut gogoan: “Gay ezkontzen alde egiten dut, hain zuzen ere kontserbadorea naizelako”. Hau da, ikuspuntu kontserbadore batetik hobe homosexualak ezkontzen badira eta Jainkoak agindutako bizimo-



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Alejandra eta Rosa atzerritartasun legeak bultzatuta ezkondu ziren; Kolonbiakoa da Alejandra. Transexuala ere bada. PPko zinegotzi batek marmarka ezkondu zituen. Pasaportearen arabera Alejandra gizona zen, baina soinekoz ezkondu ziren biak, eta ortzadar koloreko lore sorta artean

dua badaramate. Hori ez da bekatua; baso edo sauna batean ezezagunekin txortan egitea bai, ordea. Ondorioz, Bilboko Alde Zaharrean biltzen garen lesbiana hiritarren artean diskurtso ofiziala ezkontza homosexualak dakarren “heterosexualizazioa” kritikatzeko da.

Alejandra eta Rosa atzerritartasun legeak bultzatuta ezkondu ziren; Kolonbiakoa da Alejandra. Transexuala ere bada. PPko zinegotzi batek marmarka ezkondu zituen. Pasaportearen arabera Alejandra gizona zen, baina soinekoz ezkondu ziren biak, eta ortzadar koloreko lore sorta artean.

Solek ez zuen ezkontzetan sinesten, baina FELGTBn parte hartzen zuen Extremadurako landako lesbianen isolamenduarekin bukatu nahi zuelako. PPk ezkontza legearen kontra egin zuenean, federazioak kideei esan zien ezkontza kopuru handia behar zutela legea hobeto defendatzeko. Jarraian bere neskalgunarengana lore sorta batekin jo zuen. Jardunaldi horietan euren emazteei buruz harro hitz egin zuten, horietako asko herri txikietakoak dira eta bada-kite zer den lesbianismoa ezkutuan bizitzea. Eurentzat ezkontza legeak jendartean hedatu duen genero berdineko pertsonen arteko amodioa zilegi da. Landako lesbianaren bakardadea bizi duen emakumea ezkontzen denean, bera baztertu duen jendarteari aurre egiten dio: existitzeko duen eskubidea plazaratzen du.

Beharrezkoa da ezkontzeko eskubideak sexu askatasuna bermatu ez duela gogoratzea, LGTBfobia bizi-bizirik jarraitzen duela, eta “integrazio” bide horrek normalak izan nahi ez dugunok baztertzen gaituela. Baina tira, emakume hauek ezagutu ondoren uste dut komeni dela erradikal/instituzional edo kontserbadore/urratzaile dikotomia sinplistik alboratzea eta norbanakoen istorio eta iraultza txikiak aintzat hartzea. ■

Datak

2006ko azaroaren 29a: ama zena-
ren izena eta bi abizenak Googlen
bilatzeko bulkada sentitu dut eta,
zer aurkitu nahi nuen ez nekien arren,
harri eta lur gelditu naiz ikusi duda-
nean ez duela emaitza bat ere. Ama hil
da arrasto digitalik utzi gabe.

2012ko otsailaren 5a: egunkarian
eskela bat irakurri dut *Doña Predestina-
ción* izeneko andre batena, Tafallakoa,
Burlatako tanatorioan dagoena. Txistea
egina etorriko zen, grazia balu.

2011ko otsailaren 6a: *Noticias* egun-
kariko “*Sabía usted que...?*” atal kux-
kuxeroan gaur atera da aste honetan
Iruñeko ile apaindegi berean kasualita-
tez bat egin dutela Yolanda Barcinak eta
Maiorga Ramirezek. Antzezlan baten
hasiera ona. Biak publikoari begira ese-
rita, intimitate eta ahulezia momentu
horretan, zerukoaz eta lurrekoaz min-
tzo, tartean estilista (topikoa betetzeko
maritxu) bat sartuta.

2009ko apirilaren 13a: Ibon, Uxue eta
hirurok Almudenako hilerrira joan gara
gaur. Leku ikaragarri zabala da, bertatik
Madril ia osoa ikus daiteke. Ekarri izan
ez baninduten, ez zitzaidan inoiz honai-
no etortzea bururatuko. Zaindari batek
abisatu digu hamar minutu barru itxiko
zutela, baina irteera non zegoen zehaz-
tu gabe. Kostatu zaigu aurkitzea. Hasia
naiz pentsatzen bertan itxita geldituko
ginela, joatean hilerrirako bidea eraku-
tsi digun agure batek esandakoa (“*está
por ahí, pero que no os coja el trompete-
ro*”) beteko zela sinetsita. Krematorioa-
ren atetik atera gara azkenik, irekita
zegoen, agian errausketa bat zegoelako,
beharbada Corín Tellado idazlearena,
pentsatu dugu, edo ondorioztatu. Neure
buruari onartu diot Corín Telladoren
hiletan egon naizela etorkizunean esa-
teko eskubidea.



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

2008ko urriaren 15a: ekoiztetxeko
bat etorri da denok kontratuaren klau-
sula osagarri bat sina dezagun, isilpe-
kotasun klausula bat: hamar urtez ezin
dugu errodayeko ezer inon kontatu,
aipatu ez ezer. Sinatzea beste erreme-
diorik ez dudanez izan, kronikatxo hau
egiteari utzi beharko diot.

(Oharra: pelukeriako neskak, *raccord*
kontuez ari zela, kontatu digu, Penélope
Cruzek, *raccord*-argazkiak teknikariei
pasatu baino lehen, photo-shopa egina-
razten diela, badaezpada norbaitek fil-
tratuko balitu, eta, beraz, makillajekoak
sutan egoten direla, ez baitzeukaten es-
zenaren jarraipenerako heldulekurik).

2012ko irailaren 12a: Martzial berrira-
kurtzen ari naiz. Orain arte topatu gabe-
ko bertuteak aurkitu dizkiot. Begiratu
poema honi. Haiku japoniar fin eta pe-
plum erromatar baten parodia topikoz
jositako baten arteko nahasketa dirudi:

*Horazio, bera bakarrik, kapa beltza
jantzirik, zirkoko jokoak ikusten ari da,
plebea, senatariak eta zaldunak
zuriz jantzita dauden bitartean,
enperadorearekin bat, bakoitza bere
tokian. Bat-batean elurra hasi da:
Horazio kapa txuriaz ari da
jokoak ikusten.*

2011ko urtarrilaren 13a: arrebak
deitu dit genetistarekin egon dela kon-
tatzeko. Gure familiarren hemofiliak zer
gene duen kalteturik zehazteko, ni naiz
“familia” bakarra. Medikuek ez omen
du aurpegi onik jarri. Zenbat eta ahaide
gehiagori egin, hainbat hobe eta zeha-
tzago estudioa. Dena den, medikuak
txostenean begiratu du eta, emaitzak
guri bidali ez arren, ikerketa mediku bat
egin ziguten orain hamazazpi urte eta
Bartzelonan ba omen dute nire DNA eta
amarena gorderik, auskalo zer labora-
tegitan, auskalo zertarako. Saiatuko da
eskatzen eta horrekin moldatzen. ■

Munduko agenda



Inma Errea
IDAZLEA / ITZULTZAILEA
@inmaerrea

Natural-natural iristen dira guregana, bestela bezala, eta egiazkotzat jotzen ditugu oro har, benetan gertatzen denaren isla garde-na direlakoan. Behin gurean, asaldatzen gaituzte –askotan–, haserrarazten edota atsekabetzen –maiz– eta –inoiz gutxitan– jabaltzen. Zaharrak berri edo berri-berriak, ikasi dugu albisteak behar-beharrezkoak ditugula bizitzeko.

Frankotan, gu abiatzen gara haien bila. “Ea, ba, zer dioten gaur” pentsatu, eta pizten dugu telebista –gutxiago irratia–, edo internetera jotzen dugu –berripaperetara, gero eta gutxiago...–, jakin-min beti berri baten bultzada sentituta. Behar-beharrezkoa iruditzen zaigu munduan gertatzen diren gauza guztien berri zehatza eta etengabea edukitzea, eta abstenentzia-sindromeak jotzen ahal gaitu, tarte luzexka bat berririk gabe pasatu behar badugu.

Hain egunerokoak ditugu albisteak, hain gure sentitzen ditugu, non inoiz gutxitan pentsatzen baitugu nola sortzen diren –fabrikatzen–, nork, eta zergatik, eta zerk pizten du guregan hain egarri handia berririk gabe gelditzen garenean.

Hargatik, albistegiak, eta maiz berriak beraiek, ez dira fenomeno naturalak, euria edo eguzkia bezala, halakoak bezain ohikoak bilakatu baizaizkigu ere. Usu, ez dute gertatzen den guztia kontatzen, eta kontatzen duten guztia ere ez da gertatzen ari; ez behintzat, haiek kontatu bezala.

Harrigarria bada ere, antzeko erreportajeak –berdin-berdinak, askotan– hedatzen dituzte telebistek herrialde eta hizkuntza ezberdinetan eta aldi berean. Ez naiz ari eguneroko gertakariez –horiek ere bai, antzeko tratatzen baitituzte–, baizik eta albistegietan osagarri izaten diren berri denboragabeez. Irudituko luke munduko albisteen agenda norbait ari dela gobernatzeko, informazio jakin batzuk –edo asko– toki guztietara batera eta ikuspegi beretik helarazten.

Ez dizuet esanen albistegi edo berririk gabe bizitzeko, bai, ordea, gomutan hartzeko natural-natural bereganatzen ditugun berri horiek guztiak ez direla beti ez hain natural ez hain berri. Eta, halatan, ahalik eta gehien dibertsifikatzeko iturriak, aldizkari hau bezalakoekin fidatzeko, media erraldoiekin baino, eta, noiz edo noiz, tartetxo bat berririk gabe bizitzen saiatzeko. Benetako munta duten gauzen berri beti jasoko baitugu.

Eta sare sozialen menpe ez egoteko. Bi emakumeri, Mari Luz Estebani eta Anna Gabrieli, aditu berri diet ohartarazten sare sozialek, berezko duten beren arinean, hausnarketa politikoan izan dezaketeneragin kaltegarriaz. Biak ere pertsona konprometitua dira inguru hurbilarekin zein errealtate urrunagoekin, eta ez dirudi mundutik at bizi direnik. ■

Famaztella



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Familia Aznar Botella-ren akronimoa ezagun egin da, komunikabide batzuetan zabaldu denaren arabera, familia enpresak ustez zergak behar bezala ordaindu ez dituelako. Askoren ahotan, azkenaldiko paperen eta aferen karruselean, beste bat.

Zuri arreta erakarri dizuna, baina, beste kontu bat izan da. Han eta hemen irakurri duzunari tiraka, jakin duzu Jose Maria Aznarrek eta Ana Botellak idatzitako liburuak eta emandako mintzaldien jabetza eskubideak ustiatzea dela enpresaren xede nagusia, batez ere Espainiako presidente ohiaren kasuan. Bestela adierazita, Aznarrek eta Botellak enpresa bat eratu dute

idazle eta hizlari gisa irabazitako etekin joriak egokiro ustiatzeko asmoz.

Ia inbidia sentitzerainoko harridura sortu dizu albistearen berri jakiteak: Planeta eta Plaza & Janés argitaletxe ezagunekin sinatuak dituzte hitzarmenak, eta Georgetowneko Unibertsitate ospetsuarekin egina kontratua; liburuak izenpetzeko ekitaldietan jende andana ikusi duzu ilaran, eta hitzaldiak emandako aretoak pertsona gainezka. Aitortu beharrean zaude: matrimonioaren trebetasun intelektualen arrakastak liluratua zaitu. Bai eta horrenbesteko talentua kudeatzeko izen artistikoak ere. ■

Panamatik Lesbosera

Panama itogarritik Lesbos itogarriara begiratzen ez dudan telebistaren uhinak nire burmuineraino ailegatzzen dira. Parisen zutik irauten duten gauek *Mai 68* berriaren sorreran gaude-nez galdetuz, ateratzen naute ohetik. Berri metaketaren pean denbora geldiarazten dut. Garrantzitsuak diren galderak deslurperatzen ditut.

Subjektibitatearen boterea berriz eskuratzeko nora jo. Subjektu modernoaren heriotzaren historiara. Hutsaren jomugaraino. XX. mendeaz geroztik aurrera. Subjektibitateari buruz hitz egiten duten liburuen itopenetik kanpora. Ezinegonera. Gogomena menditik itsasora, *mediasferaren* argazkietan biluzik agertzen diren gorputzetara. Ingurune konkretutik burmuin abstrakzioara. Zehaztu gabeko arrapostuetara. Erabateko zalantzara. Subjektu desagerpena. Emakumezkoen subjektibitate. Pentsamendu ezezagunera. Mentalizazio itxaropentsu batera. Indibiduoak jasaten dutenera. Desintegrazioa. Desujektibazioa. Psikoanalisisa. Mekanismismo literarioa. Eguneroko sorkuntzara. Ekintzara. Gertakizunera. Egiak zulatzen duenera. Utopiako orokortasunera. Orainaldira. Hizkuntzarekiko maitasunera. Eduki poetikoarekikora Eraikitzen dugun bizi esperientziara.



Eric Dicharry
ANTROPOLOGOA

Morala garunen ahulezia dela zioen poetak. Euskal Herriratzen naiz eta diskurtsoen barkamen kontzeptuaren atzean errudun hitza deskubritzen dut

Hizkuntza berreskuratzera. Barne-bar-netiko egiaztatza. Elkar ezagutzera. Aukera baten emaitzara. Munduarekiko ikusmirara. Egiaren behartzera. Zentzu ezera. Garbiak ez diren sentimenduetara. Subjektu berri-berriraino. Erran

ezinerako erara. Liburu bat irekitzen dut. Ozenki irakurtzen dut : "Egonezina uxatu nahian, desorekatutako pertsonak erruduna bilatzen du, eta besteei egozten dio errua" (Laura Mintegi Laka-rra). Ingurumena entzuten dut. Ez dut uste astelehenez lan egin behar dudarik.

Zortziehun karaktere gelditzen zaizkit idazteko klase borroka fiteegi lurperatu dutela. Injustizia sozialek bizirik jarraituko duten bitartean, marxismo ideologiak egun politak ukanen baititu bere aitzinean. Idazten ari naizen azken bidaia liburutik testu bat ateratzen dut. Intelektuala den testuingurua baztertuz gero, organikoa den literatura agerian utziz gero, mahaiaren gainean gelditzen den gauza bakarra idazlearen erraiak dira. Erraietatik idatzirik den testuak Arthur Rimbaud poeta atzean dauka. Damokles ezpata izango balitz bezala gibelean dauka. Morala garunen ahulezia da. Morala garunen ahulezia dela zioen poetak. Euskal Herriratzen naiz eta diskurtsoen barkamen kontzeptuaren atzean errudun hitza deskubritzen dut. Esaguzue errudunak izan zaretela Euskal Herria bakean bizi dadin. Baina moralari inork ez dio arraposturik igortzen. XXI. mendean moralak burmuinen ahulezia izaten jarraitzen baitu. ■



**UDABERRIKO
EKITALDIAK**

Sarrerak: 8 € aldeztatik Usurbilgo Lizardi liburudendan (Etxebeste, 1- 943 361 115) / 10 € egun berean (lehiatilan)

MAIATZAK 6, OSTIRALA / 22:00
SUTEGIKO AUDITORIOAN

Txalok aurkeztutako
"Heroiak" antzezlan



MAIATZAK 7, LARUNBATA / 22:00
SUTEGIKO AUDITORIOAN

Jabier Muguruza, "Tonetti
anaiak" diska aurkeztuz.




ERRENTA2015

ZERTAN INBERTITZEN DU ALDUNDIAK ZURE DIRUA?

Ekonomiaz, garapenaz, aberastasuna sortzeaz eta giza ongizateaz haratago, Gipuzkoa hazten jarraitzeko zergak biltzeaz haratago, orain, jartzen duzun euro bakoitza zugar inbertitzen dela ulertzeko momentua da. **Orain Gipuzkoa.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
URTEKO AURREKONTUA

812M€





MURRIZKETEN SINTOMAK OSASUN ZERBITZUAN

Ospitaleak eta osasun zentroak aterpe izango ditugu guztiok, noizbait, gure osasunak ezusteko arazoren bat sufritu, edo, denboraren poderioz, gorputzak egoki jarduteko laguntza beharko duenean. Ez da alferrikakoa, beraz, osasun publikoari buruzko kezka. Azken urteetan, lan gatazken protagonista izan da Osakidetza. Jaurlaritzak egin dituen murrizketei erantzuteko batasun sindikala bultzatu dute SATSE, ELA, LAB, SME, FFHE, CCOO, UGT eta ESK-k, eta osasun zentroetan hainbat mobilizazio antolatu dituzte, greba orokor deialdiak tarteko, lan baldintzak berreskuratzea aldarrikatzeko. Murrizketen eragina langileen egoera kaltetzetik harago doa, ordea, eta gizarte osoari eragiten dio, sindikatuek salatu dutenez. Osasun zerbitzu publikoaren kalitatea dago jokoan.



Gorka Berasategi
@GorkaBerasategi

Osasun zerbitzu publikoak okerrera egin du Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, Osakidetza sindikatuen iritziz. Langileen ordezkariak adierazi dute itxaron zerrendak luzeagoak direla, ospitaleetan ohe gutxiago daudela zabalik eta lan zama gehiegizkoa dutela profesionalak gaixoak egoki artatzeko. Egoeraren ardurua Eusko Jaurlaritzari leporatzen dio-

te, azken sei urteetan bultzatu dituen murrizketengatik.

Sindikatuaz gain, Osalde osasun eskubidearen aldeko elkarteak ere uste du azken urteetako murrizketek kalte egin diotela osasun zerbitzu publikoaren kalitateari. Nolanahi, Juan Luis Uribe elkarteko presidentek desberdindu egin ditu Espainian "PP eta CiUren eskutik" garatu diren "pribatizazio ereduak" eta Jaurlaritzaren norabidea. Espainian osasun zerbitzuak berrordaintzeko ezarri zen neurriari Jaurlaritzak aurre egin ziola argitu du, era berean.

Hala ere, Urkulluren gobernuak beste murrizketa batzuk bultzatu dituela salatu du Uriak. Batez ere, "kontratazio politikan". Murrizketa horiek eragin zuzena izan dute haren ustez. Ondorioz, Osakidetza "sekula ikusi gabe geunden egoerak" ematen ari dira gaur egun. Esaterako, larrialdi zerbitzuetan "jendea esku-ohetan zain, korridoreetan pilatuta" ikus daitekeela gaitzetsi du.

Bestelakoa da Osakidetzaren iritzia. Jose Maria Armentia giza baliabideetako arduradunak ez du uste zerbitzuaren kalitateak okerrera egin duenik. Aldiz, defendatu du Osakidetzako datuek "hobekuntza" adierazten dutela "zerrenden kudeaketan eta eman den erantzunean". Helburua "gutxiagorekin gehiago egi-tea" da, Armentia esanetan.

Zerbitzuaren kalitatea ezbaian

Gutxiagorekin lanean ari direla, horixe da hain justu, langileen ordezkarien ustez zerbitzu ona eskaini ahal izateko oztopo nagusietako bat. 2013an funtzio publikoko langileei lanaldia luzatzea erabaki zuen Jaurlaritzak, urteko 1.592 ordutik 1.614,5era.

Osakidetzak Deloitte aholkularitza enpresari eskatutako txostenaren arabera, 2012tik 2013ra 1.500 lanpostu desagertu ziren lanaldia luzatzearen eraginez. Jaurlaritzak aurreko lanaldira itzultzeko erabakia hartu du 2016rako, baina Espainiako Gobernuak helegitea aurkeztu du neurriaren aurka eta momentuz ezingo da indarrean sartu.

Horrez gain, bada lanpostuak sunsitzen dituen beste faktore garrantzitsu bat, sindikatuen esanetan: behar baino ordezkapen gutxiago egiten ditu Osakidetzak. LAB sindikatuko Edurne Agirrek azaldu duenez, "mediku askori ez diete ordezkapenik egiten", eta lehen arretarako "erizain laguntzaileak ere geroz eta

gutxiago daude". Ondorioz, lankideek hartzen dute falta den langilearen beharra eta "lan zama handiegia izaten da". "Mediku batek baja edo oporrak hartzen baditu, bere kupoa besteen artean banatzen dute, eta denbora laburragoan ikusi behar dituzte gaixoak".

ELAko ordezkari Pello Igeregi dioenez, "Osakidetzak ez du ordezkapenertarako irizpide argirik eta tokia arabera, denbora luzeagoa igarotzen du ordezkapenik egin gabe". Orokorrean, "beste erremediorik ez dagoenean" egiten ditu ordezkapenak. "Adibidez, kontsulta batean mediku bakarra baldin badago, mediku hori ordezte besta aukerarik ez dute. Baina beste batzuetan, bi medikuren artean hartzen dute falta denaren lan karga".

» **Sindikatuak diote Osakidetzako itxaron zerrendak luzatu egin direla, ospitaleetan ohe gutxiago daudela zabalik eta profesionalen lan zama gehiegizkoa dela gaixoak egoki artatzeko**

Gehiegizko lan kargak Osakidetzaren zerbitzuaren kalitatean eragin zuzena duela salatzen dute sindikatuek. Egin dituzten kalkuluen arabera, ordezkapen faltak eta lanaldia luzatzeak 3.000 lanpostu suntsitu ditu Osakidetza.

Aldiz, Jose Maria Armentia 2013an kontratazioa jaitsi egin zela aitortu arren, azpimarratu du azken bi urteetan 2012an baino "kontratazio gehiago" egin direla. Osakidetzako giza baliabideetako arduradunak ez du uste lan zama zerbitzuaren kalitatean eragin duenik. "[Langileei] ahalegin handiagoa eskatu diegu azken urteetan eta erantzuna oso ona izan da".

Hain zuzen, Osakidetzak nabarmendu du ebakuntza baterako itxaron zerrenda 50 egunekoa dela batez beste, argitaratu duen azken Jarduera Balantze txosteneko datuen arabera. Osakidetzako zuzendari nagusi Jon Etxeberriak garrantzia eman dio itxaron zerrenda epe horretan mantentzeari, 2014tik 2015era "ebakuntzen jarduera [%4] handitu arren".



Murrizketen kontrako mobilizazioa Gurutzetako ospitalearen aurrean, 2015eko apirilaren 23an.

UNAI BREA

Nola neurtu behar da itxaronaldiaren iraupena?

Osakidetzaren datuak ez datoz bat errealitatearekin sindikatuen ustez, eta “gardentasun falta” salatu dute, osasun publikoaren zerbitzu eta kudeaketari lotutako adierazleetan. Itxaron zerrenden egoera Osakidetzak dioena baino okerragotzat dute. Zerrendak neurtzeko moduak egiazko itxaronaldiak desitxuratzaren dituela diote. Izan ere, itxaron zerrenden iraupena ez da lehen mediku kontsultatik zenbatzen hasten. Zerrendak neurtzen duen epea mediku espezialistarekin hitzordua izan eta proba klinikoa edo ebakuntza egin artekoa da. Beraz, datuetatik kanpo uzten da familia medikuarekin kontsulta egin eta mediku espezialistarengana iritsi arteko denbora.

ELAko Pello Igeregik salatu duenez, zenbatzen ez den tarte “lauzpabost hilabetekoa izaten da kasu askotan”. Osaldeko presidente Juan Luis Uriaren ustez itxaron zerrendak neurtzeko metodologiak “ez du zentzurik” eta bat dator “zerrendak nabarmen handitu” direlako ustearekin. Zenbait arlotan, traumatologian bereziki, zerrendak urtebete inguruak izan daitezkeela gaineratu du.

» **JUAN LUIS URÍA, OSALDE:**
“Murrizketen eraginez sekula ikusi gabeko egoerak ematen ari dira Osakidetzan. Larrialdietan jendea esku-oheetan zain egotea, korridoreetan pilatuta”

» **JOSE MARIA ARMENTIA, OSAKIDETZA:**
“Langileei ahalegin handiagoa eskatu diegu azken urteotan eta erantzuna oso ona izan da. Gutxiagorekin gehiago egitea da helburua. Ez dut uste lan zamak zerbitzuaren kalitatean eragin duenik”

Itxaron zerrendak arintzeko, gaixoak ospitale pribatuera bideratzen direla ere salatu dute langileen ordezkariak. Edurne Agirre LABeko kideak adierazi du zerrendak “apropos” luzatzen direla, ospitale pribatuei mesede egiteko. “Jon Darpon [Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua] IMQtik dator –zuzendaria izan zen enpresaren hiru ospitalean–. Esan beharrik ez dago; ate birakariak ongi funtzionatzen dute”. Agirrek azpimarratu du 2013an 250 milioi euro ordaindu zizkiela Osakidetzak ospitale pribatuei.

Nekatutako langileak

Baina murrizketen eragina ez da zerrenden iraupenera mugatzen, sindikatuen hitzetan. Langile faltagatik ospitaleetan ohe gutxiago irekitzen direla salatu du Pello Igeregik. “Kasu batzuetan zaindari faltagatik izaten da. Medikuek artatu du gaixoa, ospitaleratzea erabaki du eta ohe bat libre dago baina ez dago zaintzailerik gaixoa ohera eramateko. Horrek ere larrialdi zerbitzua ito dezake”.

Oporraldi garaietan Osakidetzak oheak itxi izan ditu. 400 ohe inguru itxi zituen iazko Aste Santuan, “baliabideen optimizazioa” dela-eta; 700, berriz, Eguberrietan. Ohiko egunetan ere ohe guztiak ez

MARGÜELLO AUZIA: NEGOZIOA ITXARON ZERRENDEN KONTURA

Itxaron zerrenden egoerarekin lotuta, Margüello auzia ekarri du gogora LABeko Edurne Agirrek. Izen horrekin eman da ezagutzera Osasun sailleko hiru goi-kargu ohiren kontrako epaiketa. Jose Carlos Margüello Gurutzetako ospitaleko buru ohia, Jose Ramon Elorriaga Bizkaiko lurralde zuzendari ohia eta Rafael Cerdán Osasun sailburuorde izandakoa inputatu ditu Bilboko Auzitegiak, ustezko prebarkazio, influentzia trafiko, diru publikoaren erabilera bidegabe, iruzur eta langile publikoei debekatutako negoziozientzat. Epailak martxoan kaleratu zuen autoan adierazten duenez, hiru goi-karguak ados jarri ziren Margüelloren enpresa bati Bizkaiko itxaron zerrenden kudeaketa esleitzeko. Gestión de Servicios Sanitarios XXI S.L. enpresak Osakidetza eta ospitale pribatuen arteko bitartekari lanak egin behar zituen osasun publikoko itxaron zerrendak arintzeko. Esleipenean delitu zantzuak daudela uste du epailak. Edurne Agirreren ustez, batzuek itxaron zerrendekin negozioa egin nahi izan dute.



IREKIA/EUSKO JAURLARITZA

erabiltzea leporatzen diote sindikatuek Osakidetza, langile kopuru nahikoa kontratatzeari uko egiten diolako.

Lehen arretak ere jasan du murrizketen eragina Osalderen esanetan. Uriak dioenez, langile askok “nekatuta” jarduten dutela aitortu dute, lan zama handitu dietenez, “gaixo asko artatu behar dituztelako”. Dena den, lehen arreta zerbitzua da Osakidetza “alde handiz, hoberen funtzionatzen duena”, Uriaren ustez. Zerbitzu “estrategikoa” deritzo, “batez ere gaixo ahulenak, adinekoak eta gaitz kronikoak dituztenak” zaintzen direlako.

Uriarekin bat dator Igeregi eta langileak gaitz ibiltzen direla azpimarratu du. “Orain gutxi Zumarragako Ospitalean goizeko ordu bietan bukatu zuten gaixoei fardelak aldatzen, langile nahikorik ez zegoelako. Beste ospitale batzuetan odola gauean atera behar izan dute, egunean zehar ez dagoelako

Itxaronaldien iraupena neurtzean, gaixoa espezialistarekin dagoenetik proba klinikoa edo ebakuntza egiten dioten arteko denbora hartzen du kontuan Osakidetza, baina datuetatik kanpo uzten du familia medikuarekin lehen kontsulta egiten duenetik espezialistarengana doan artekoa, “kasu askotan lauzpabost hilabetekoa” sindikatuen esnetan. Osalde elkartearen ustez Osakidetza itxaronaldiak neurtzeko darabilen metodologia zentzugabekoa da.

denborarik. Horrek erakusten du zenbateko lan zamarekin ari diren lanean”.

35 orduko lanaldira itzultzea helburu Jaurlaritzak 35 orduko lanaldira itzultzeko hartu duen erabakiari balioa eman diote alde guztiek eta neurria –Espainiaren helegitea gaitz ibiltzen bada, 1.500 lanpostu berreskuratu beharko lituzke. Hala ere, sindikatuen ustez, lanaldia lehengora ekartzea ez da nahikoa izango Osakidetza dituen

» Jaurlaritzak 35 orduko lanaldira itzultzeko erabakia hartu du 2016rako, baina Espainiako Gobernuak helegitea aurkeztu dio erabakiari eta momentuz ezingo da indarrean sartu

» Sindikatuen ustez, lanaldia lehengora itzultzea positiboa izango da, baina ez da nahikoa izango Osakidetza beharrei erantzuteko

beharrei erantzuteko. Egoerari aurre egiteko inbertsio gehiago behar dela aldarrikatu dute. ELAk epe motzean 5.000 lanpostu sortzea beharrezkotzat du zerbitzuaren kalitatea berreskuratzeke. LABek 2018. urterako 15.000 lanpostu sortu beharko liratekeela dio.

Momentuz, ordea, Osakidetzaaren asmoa da hutsik geratzen diren plazak lehiaketara ateratzea. Jose Maria Armentiak azaldu duenez, egoerak ez du gehiagorako ematen. "Jaurlaritzak argi esan zuen defizitaren helburua bete beharra zegoela eta hor muga bat daukagu jarrita. Bestetik, Espainiak berriro ezarri du hutsik geratzen diren plaze-tarako tasa. Oraingoan %100 da, baina argi utzi behar dugu ezin ditugula bakan-te guztiak atera. 2016an lehiaketara atera daitezke 2015ean jubilatu zirenen edo izan diren baten %100, baina ez besterik". Sindikatuak eta Osakidetza osasun sektoreko mahaian bildu dira otsail, martxo eta apirilean, baina negoziaketetan ez da adostasunik izan.

Sindikatuaren ustez, osasunean gehiago inbertitzea posible da eta hala ez egitea ez da krisiaren ondorioa, "erabaki politikoa" baizik. Pello Igeregik azaldu duenez, aurtun Barne Produktu Gordi-naren %4,8 bideratuko da osasunerari, baina Europar Batasuneko batez bestekoa (%7,3) berdinduko balitz, 1.500 milioi euro gehiago bideratuko lirateke.

Osalde ere ohartarazi du inbertsio handiagoo beharrezkoa dela. "Azkenaldian Jaurlaritzako agintariak ospitaleak eta teknologia garatuko makinak inauguratzen ikusten ditugu baina ez da apenas inbertsiorik egin teknologian" salatu du Uriak. Jaurlaritzari egotzi dio "defizitarengatik kezkatuago" egotea, "pertsonegatik baino". ■



Gaixoak Gurutzetako ospitaleko Larrialdietako korridore batean ikus daitezke erabiltzaile batek egindako goiko argazkian. "Batzuetan zaindari faltagatik ez dira eramaten gaixoak oheetara, ohea libre egon arren; horrek ere ito dezake larrialdi zerbitzua", dio ELA sindikatuak Pello Igeregik. Behean, gaixoak Txagorritxuko ospitaleko Larrialdietan zain.



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatuetan adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

Fernando Mikelarena

“Nafarroan Gerra Zibilean jazotakoa isildu izana gizarteari zor zaio”

Nafarroako agintariek azkar eman zioten sostengua 1936ko uztailaren 18an Franco diktadoreak Afrikan hasitako altxamenduari, eta horretan oinarrituta faxistek “Nafarroa lehena” izan zela azpimarratu dute. Fernando Mikelarena (Bera, 1962) historialaria ere bat dator, baina guztiz muturrekoa den beste interpretazio batekin: lehena izan zen, bai, arerio politikoen hilketak zenbatuz gero.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Koldo Azkune Etxabarri

*Iruñeko Erorien Monumentuan izan gara
Fernando Mikelarenarekin.*



Fronte Popularrari bozka eman zioten herritarren kopurua eta karlista eta fa-langistek gerora hil zituztenena alde-ratzen baditugu, Nafarroak Estatuko portzentajerik altuena du, non eta ge-rra frontierik gabeko lurraldean: alderdi horretako 1.000 boto-emailetik ia 100 exekutatu zituzten. Fernando Mikela-rena ikertzaile beratarrak “gupidarik gabeko” errepresio hori ikertu du *Sin piedad. Limpieza política en Navarra, 1936. Responsabilidades, colaboradores y ejecutores* (Gupidarik gabe. Garbiketa politikoa Nafarroan, 1936. Ardurak, kolaboratzaileak eta exekutatzaileak) liburuan. Nafarroako laborategian lan-dutako garbiketa politikoa frankistek iparraldeko frontera hedatuko zuten ostera.

Nola lortu ahal izan duzu informazio hori guztia?

Jabetu nintzen baliogarria izan zitekeen informazio zuzen gehiena garbiturik ze-goela, edota deuseztatuta. Falange eta Gobernu Zibilaren dokumentazioa de-sagerrarazi zuten, eta Karliten Gerra Junta Zentralarena zentsuratua zegoen. Orduan, pentsatu nuen ikerketa sakona-go baten bidez zuzenak ez ziren beste-lako informazioak lor nitzakeela. Solda-du batzuen fixxetan, kasu, atzeguardian burututako aktibitateen berri ematen zutela ikusi nuen. Orduko amorru eta grinak bultzatuta, ez ziren batere moztu gerran egindakoez hitz egiterakoan. Beste batzuk askoz zuhurragoak izan ziren eta ez zuten ezer kontatu.

Errepresiogileen irudian zentratu zara. Zergatik?

Gai honetara gerturatu diren bakanak tontorrean zeuden agintariak, milizietako arduradunak edo heriotza-eskua-droietako kideen irudiak jorratzera mu-gatu dira. Baina ez dugu ahaztu behar herritar anonimoen partaidetza guztiz erabakigarria izan zela. Herriko aginta-riek errepresioari uko egin zioten he-rrietan, adibidez, ez zen ezer gertatu. Botere publikoak errepresioari atepak ireki zizkion herrietan suertatu ziren hilketak.

Berbintzanako Txato, Benito Santesteban edo Galo Egues aipatzen ditugu 36ko errepresioaren ordezkari bezala. Baina nolakoa izan zen herritar arrunten par-taidetza?



“Egia da herri batzuetan liskarrak izan zirela, baina orduko zatiketak ezin du ostera etorriko zena berez esplikat. Bat-batean bizimodu zibilizatuaren oinarriak hautsi ziren”.

Badago Poloniako herrixka bati bu-ruzko liburu interesgarria, Jan T. Gross idazlearena, *Neighbors*, Bigarren Mun-du Gerran girotua. Jedwabne izeneko herri batean erdiak poloniarrek ziren eta beste erdiak judutarrak. Bada polo-niarrek judutarrak sarraskitu zituzten. Autoreak liburuan egia ofiziala biluztu zuen: judutarrak akabatu zituztenak ez zirela naziak edo Gestapoko kideak izan, hango herritarrek baizik. Leku as-kotan gizarte zibilak errepresioarekin izan duen kolaborazioa ikertu dute. Gu-rean ez. Dokumentazioaren desager-pena eliteen agindu bati esker etorriko zen ziurrenera, baina Nafarroan Gerra Zibilean jazotakoa isildu izana gizartea-ri zor zaio, zalantzarik gabe. Karliten parte-hartzeaz, adibidez, isiltasun-itu-na egon da nafarragoak direlako, kato-likoagoak...

Eta nork estali nahi izan du gaia?

60-70 hamarkadetan biztanle asko he-rritik hirira joan ziren, nekazaritzatik fabriketako langile izatera pasatuz, eta eskuin tradizionalistako familietan ha-zitako askok ezkerreko ideiak edo eus-kal abertzaletasuna besarkatu zuten. Hortaz, gai horrek ezerosotasun ugari planteatzen ditu. Azken batean 3.000 hildakoz ari gara, Nafarroak bere his-torian bizi izan duen tragediarik han-dienaz.

1936 baino lehen, hain zatitua al zegoen Nafarroako gizartea?

Modu analitiko-objektibo batetik ezetz esango nizuke. Egia da herri batzuetan liskarrak izan zirela, baina orduko zati-ketak ezin du ostera etorriko zena berez esplikat. Bat-batean bizimodu zibili-zatuaren oinarriak hautsi ziren, hori da gertatu zena. Elementu oso eraginko-rrak erabili zituzten jendea mugiarazi eta polarizatzeko, erlijioa adibidez. Maiz esaten didate herrietan sinetsita zeudela arerioek adarrak eta buztana zituztela. Badut liburu bat oso gustu-ko dudana, Joseba Zulaikarena, Itziarko ETaren indarkeria aztertzen duena. Zu-laikari leporatu zioten jatorri politiko-ko indarkeria elementu antropologikoz mozorrotzen ahalegintzea. Baina nola liteke aparteko gatazkarik gabeko gizar-te batean, zenbait mezu eta diskurtso tarteko, herritar batzuk gisa horretako basakeriak egiteko gai izatea?

Orduan gertatu zirenak munduko beste gertaera odoltsu batzuk ekartzen dizki-gute burura.

Gutako gehienak oso inozoak garela iru-ditzen zait indarkeriak jendearen ja-rrerengan duen eragina neurtzerakoan. Saltoa ematen dutenek arras ongi eza-gutzen dituzte helburu politikoko indar-keriarekin lor daitezkeen etekinak. Eta gu ez gara batere kritikoak. Herrialde

ERREPRESIOAREN LABORATEGI

Erriberako ezkerreko mugimendua izan zen faxisten errepresioaren helbururik behinena. Gizarte eredu berri baten alde borrokan ari ziren herritarrak zientoka desagerrarazi zituzten, naziek ostera erabiliko zituzten antzeko metodoez baliatuta. CNTko kideak, UGTkoak eta jurnaliariak izan ziren triskantza horren biktima nagusiak.

Fernando Mikelarenak dio gertaera horien gainean argitu gabeko kapitulu asko dagoela. Horien artean, errepresioaren diseinuarena: "Arraroa da oso inor ez ohartzea frankisten errepresioa muntatu zuena Karlisten Junta Orokorreko kide bat izan zela: Marcelino Ulibarri, Bilbo erori eta hiri bat nola menpean hartu protokolizatu zuena. 1938an komunismo eta masoneriaren kontrako arduraduna izendatu zuten Ulibarri. Hiri bat azpiratu bezain agudo, egiten zuten lehenengo gauza sindikatu eta alderdi politikoei egoitzetara jotzea zen, dokumentazioa konfiskatu eta zigortu beharreko elementuen zerrendak egiteko. Gizon horrek protokolo horiek diseinatu zituen, eta lehenbizi Nafarroan entseatu zituen".

Idazle beratarrek ez du bere tesia frogatu dezakeen errepresio-metodo edo gida-libururik aurkitu, baina sinetsita dago hemen ikusitako teknika asko nazien Alemanian ere erabili zituztela: "Erriberako leku askotan ezkertiarrei besoak eramatera behartu zieten. Herri asko kontzentrazio-esparruak bihurtu ziren. Herritik kanpora nekazaritza lanak egitera atera ahal izateko udaletxean baimen bat eskatu behar zuten. Gainera, egunez eta gauzez etxeko ate eta leiho guztiak zabalik mantendu behar zituzten, kanpotik erraz ikusteko moduan. Datu hauek ongi aski erakusten dute errepresioa modu zientifikoan landu zutela".

Mikelarenak bildu dituen datuen arabera, Ulibarri Zaragozan bizi zen eta Karlisten Junta Orokorrekin bat egin asmoz etorri zen Iruñera. Francoren lagun mina omen zen Zaragozako Akademia Militarrean elkarrekin egon zirenetik, eta Molarena ere. Bada, Nafarroan atzeguardiako errepresioa egiteko berak enplegaturiko metodologia, Gipuzkoa eta Bizkaira ez ezik, frankisten menpe erori ziren beste zonaldeetara ere esportatua izan zen.



Nafarroako
Junta Central
Carlista-ko
kideak 1936an.

ezberdinetan eman diren horrelako gertaerei erreparatu gero, muga bat gurtzatzean ondorioak oso lazgarriak izan daitezkeela ikusiko genuke.

Nafarroan indarkeriak zer ondorio politiko ekarri zuen?

Orduan gertatu zenak sektore zehatz batzuei berrogei urtez boterean man-

tentzea ahalbidetu zien. Falangek 36ko hauteskundeetan 40.000 boto eskas izan zituen Estatuan, boto guztien %0,1. Karlista eta falangistek ezin zuten boterea bide demokratikoen bitartez eskuratu. Deigarriena ez da indarkeria horrekin boterea lortu zutela, 40 urtez hor mantendu zirela baizik. ■

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



© 943 453 588 · www.sigacus.com

ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biológikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia:

**JARRI PUBLIZITATEA
HEMEN**



ARGIA

943 371545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

Adolfo Muñoz, ELAko idazkari nagusia

“EUSKAL NEOLIBERALEI ASKO GUSTATZEN ZAIZKIE ESPAINIAKO LEGE ETA HITZARMENAK”

Maiatzaren 1a gertu dela izan gara Adolfo Muñoz *Txiki*-rekin (Mañueta, 1959) Gasteizen. 2008tik da ELAko idazkari nagusi eta krisiaren urte latzenetan tokatu zaio sindikatu abertzalea gidatzea. Nabari zaio, jarreran eta mezuan, giro erasokor batean ondu behar izan duela bere burua: “Duela zortzi urte ez genuen espero hau bizi behar genuenik, baina patronalak ere ez zuen espero hainbeste botere emango ziotenik”.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIAK: RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

2009an esan zenigun ez zeundetela prest “krisia langileek ordaintzeko”, zazpi urteotan gertatu dena ikusita, zer balantze egiten duzu?

Ez genuen espero botere ekonomikoak politika hainbeste baldintzatuko zuenik. ELA patronalarekin, gobernuekin eta hainbat kazetarirekin egoten denean esaten digute “hau da dagoena”, ontzat ematen dute. Nik balantze txarra egingo nuke, batez ere ikusita zer paper jokatu duen politikak krisi honetan.

Herritarrari ere mezu hori helarazten zaio, murrizketak egin behar dira ez da-goelako beste erremediorik. Horrela da?

Ez. Demokrazia baldin badago alternatiba badago, baina ez dago demokrazia-rik. Gaur bertan hedabideetan agertzen da Greziak aurkeztuko duela pentsioen erreforma bat eta Troikak esan dio “ez duzu imajinatuko zuk legebiltzarrerara eramango duzula hori nirekin adostu

gabe?”. Legebiltzarrerara iristen dira soilik demokraziatik kanpo ontzat eman dituzten gauzak.

Hori gertatzen da Grezian eta gertatzen da Espainian. [Pierre] Moscovici Europako ekonomia komisarioak hori dio, esaten duenean bilera bat duela Espainiako Gobernuarekin, eta ez dakiela norekin baina bai zertarako: 23.000 milioi euroko doikuntza egiteko. Pentsioen erreforma ari dira pres-tatzen.

Oraindik okerreana pasatzeko gaude?

Hau ez da amaitu. PSOEek Ciudadano-sekin egin akordioan garbi azaltzen da prest daudela Europarekin dituzten memorandumak aurrera eramateko. Hor-tik ez da aldaketarik etorriko. Euskal Herrian berdin: Urkulluk dio bete duela defizita, egia izan daiteke, baina nola? Murrizketak egiten eta ortodoxia neoli-berala jarraituz.

Kasu odoltsuak ikusten ari gara: Arcelor, Tubos Reunidos... Zuek Eusko Jaurlari-tzaren industria politikarik eza kritikatu duzue.

Industria sailak diru-laguntzak ematen dizkie enpresei; lobby bat bezala ari da jokatzeko hoberi fiskalak izan ditzaten.

Argudiatu dezake ekonomia suspertzeko dela.

Txinarekin lehiatu nahi baduzu horrek ez du mugarik, eta kohesio soziala baldintzatzen du. Enpresa-errentek ez ba-dituzte zergak ordaintzen, soldatetatik bakarrik bilduko da dirua?

Arcelorren kasuan *dumpinga* existi-tzen da, bai, baina multinazionalak egi-ten dute Txinatik. Tarifa elektrikoaz, ber-riz, EHUKo txosten batek dio enpresa horiek ez dutela Alemanian baino gehia-go ordaintzen. Baina Jaurlaritzak ontzat eman ditu argudio horiek eta erraztu egin dio bidea: enpresak aukeratu du



doikuntza hemen egitea erraza eta merkea zaiolako.

Hitzarmen kolektiboen “estatalizazioa” salatu duzue, hori gabe ez dagoela autogobernurik. Paradoxikoa da politikaren arloan burujabetzaz hainbeste hitz egiten denean, arlo sozialean halakoak salatu behar izatea. Zergatik gertatzen da hori?

Guk subiranotasun soziala defendatzen dugu, baina ez bakarrik helburu moduan, gaurtik hasita baizik. Soziala ez bada, ez dugu inoiz irabaziko subiranotasuna. Eta estatalizazioak pobrezia dakar. Espainiako patronalak Bizkaiako ostalaritzaren hitzarmena inpugnatu du eta kolektibo horri soldata %50 murriztuko zaio, esaterako. Hori oso erakargarria da botere ekonomikoarentzat –Mondragon taldea barne– baita politikoarentzat ere. Guk gogor salatu dugu EAJren jarrera: 1994an Espainiak gauza bera egin nahi izan zuenean alderdi horrek jokabide duina izan zuen, baina orain ez du inolako interesik. Euskal neoliberaleari asko gustatzen zaizkie Espainiako legeak eta hitzarmenak.

Klausula sozialak ezartzeko legegintzako herri ekimenaren (LHE) ordeztu, EAJk eta PSEk hurbileneko ituna betetzera derrigortzen ez duen testua onartu dute. Aipatu duzun joera horren adibide izan liteke?

Tramitazioan esan digute legean ezin dela azaldu zer hitzarmen ezarri behar duten enpresek. Confebask eroso dago, ultra-aktibitatearen eraginez bertan behera geratzen dira hemengo hitzarmenak eta indarrean jartzen dira Espainiakoak. Eta Urkulluk defizita horrela bete du, eraikuntza publikoan orduko bost euroko lan-baldintzak inposatuz. EAJko legebiltzarkide batek duela sei hilabete garbi esan zigun: “Subrogazioa ontzat hartuko bagenu, ezingo genituzke lizitazioak beherago eraman”. Momentu horretatik bagenekien legegintzako herri ekimena baztertuko zutela.

Baina zer egin daiteke Europak agintzen duen defizit mugarekin?

Alternatiba ere fiskalitatean dago. European dagoen batez besteko presio fiskala ezartzen bada, EAEn 5.700 milioi euro gehiago lor daitezke, eta Nafarroan 1.800 milioi gehiago. Noski, zor publikoaz Espainiak agindutakoa bete nahi

baduzu eta defizit muga obsesio bat baldin bada zuretzat, fiskalitatea ukitu gabe ez dago beste alternatibarik.

Legegintzako herri ekimena baztertu ondoren, zer bide hartuko duzue orain?

Prekarietatea non dagoen, hara joan behar dugu. Pentsatzen badute itxiera horrekin amaituko dela arazoa, oker da biltza. LHEaren edukiak udaletara eramaten ari gara, eta esaterako Durangon onartu egin da. Jendeari azalduz gero atzean zer dagoen, etor daitekeenaren aurrean balazta jar daiteke.

Urkulluren gobernuarekin oso kritiko azaldu zara, politika neoliberalak jarraitzen dituela esanez. Angel Toña sailburuak "maximalista" izatea egotzi dizue eta Urkulluk berak "errealitatetik kanpo" bizitzea. Zergatik dago hain ospinduta zuen arteko harremana?

Lehentasuna ortodoxia neoliberalak baldin bada, ez dago tokirik akordioak bilatzeko. Eusko Jaurlaritzak harreman "klientelarrak" nahi ditu. Akordio partziala egitekotan, akordio horrek baldintzatu behar ditu sindikatuaren kritikak gobernuarekiko, eta gu ez gaude horretarako prest.

Hitzarmen kolektiboen estatalizazioaz hitz egiteko bilera eskatu duzue Urkullurekin eta Barkosekin. Erantzunik jaso duzue?

Urkulluk ezezko borobila eman digu eta Barkosekin data jartzekotan geratu gara.

Prekarietatea aipatu duzu. Badaude gazte langabetuak, bost euro kobratzen duten azpikontratatuak, zaintza lan ikusezina egiten dutenak... Jende horri guztiari behar bezala erantzuten ari al da sindikalgintza?

Ez. Adibide bat: eraikuntzan hitzarmenak daude sinatuta Bizkaian, Araban eta Nafarroan –Gipuzkoan ez–, baina ez dira ezartzen, hitzarmenak sinatzen dira baina ez dira ezartzen. Horregatik negoziazioan ezarpen bermeak eskatu ditugu, baina patronalak ez du sinatu nahi.

Eta prekarizatuen beharrei erantzun ezinean bazabiltzate, ELA barruan egin duzue hausnarketarik edo autokritikarik?

Momentu honetan eztabaida hori da kezka nagusia sindikatu barruan.



Aldaketak egin ditugu antolakuntzan: federazioko jendea eraman dugu eskualdeetara, enpresetan lan oso zaila denari babesa emateko. Enpresetako zoru naturala uzten baduzu ez zara inor, eta adibideak badaude sindikalgintza munduan. 3.500 delegaturen artean ikastaroak egin ditugu, koiuntura eza gutu eta prekarietate mapak osatzeko. Kanpaina bat ere martxan jarri dugu, prekarietatea ardatz duena, eta enpresen etekinak eta super-soldatak agerian utziz.

Kanpaina horretan politikari eta enpresari argazkiak erakutsi zenituzten, horrek polemika izan zuen.

Baina oso pedagogikoa da. Jendea kontziente da manipulazioaz, baina kontzientzia hori botere bihurtu behar da. Mundu hutsal honetan politikak, ezkerrek barne, uko egin dio eztabaida ideologikoari. Ezkerren ardura baldin bada nola lehiatu instituzioetan boterea irabazteko, gobernatzen hastean tarte

estua baizik ez du aurkituko. Eta kanpotik egiten zaion interpelazioak ezin du arazo izan, ez baitago munduan ezkerrik kanpo interpelaziorik gabe.

Hori esatean, Nafarroa duzu buruan?

Baita ere. Nafarroan akordio programatikoa bat egin zen eta hainbat esparrutan pozik gaude, UPNren erregimenak onartzen ez zizkizun oinarritzko gauzak onartzen dizkigutelako orain, oroimen historikoarekin kasu. Euskararen arloan ere eman dituzte aurrerapausoak –ez nahikoak, gogoratu behar da Vascuencaren Legea indarrean dagoela oraindik–. Baina egin duten zerga-erreforma ziztrinarekin aldaketa politiko eta sozialik ez da egongo.

Eragile sozialen eta sindikatuen funtzioak zein izan beharko luke testuinguru horretan?

Horren atzean dago ELA eta LABen arteko desadostasun bat. Zer paper jokatu behar du sindikatuak? Instrumenta-

"Ohituta gaude eskuinari entzuten demokraziaren legitimitatea parlamentuan amaitzen dela. Haien ustez antolakunde kolektiboek ez lukete botere publikoaren eta herritarren arteko erlazioan eragin behar"



» Legebiltzarrera iristen dira soilik demokraziatik kanpo ontzat ematen diren gauzak. Hori gertatzen da Grezian eta gertatzen da Espainian

» Barne sailburuak ez gaitu hartu *Mozal Legeaz* hitz egiteko; arrasto autoritario bat dago eta distantzia gero eta handiagoa

la izan behar du edo autonomia izan behar du? Gure kezka nagusia sozialki eragitea da, edozein dela ere instituzioetan dagoena. Lehen esan dut, ezkerrek hausnarketa egin behar du, baina horren barruan instituzioetan ez gaudenok ere eztabaidatu behar dugu zer paper jokatzeko dugun. ELAk garbi du instituzioetan ez dela ezkerrik izango bertan behera geratzen bada aktibazio soziala.

ELA eta LABen arteko ekintza sindikal bateratua urrun dagoela dirudi.

Aliantza sindikalak oinarri sindikalik gabe ez du etorkizunik. Potentzialtasun handia ikusten dugu ELA-LAB erlazioan, baina ezker abertzalea boterea kudeatzen aritu den garaian ez zaio interesatu; aliantza instrumentala bilatu du eta ez du interpelatu nahi izan.

Zein kasutan?

Bildu Gipuzkoan sartu zenean bankarizazioarena egin zuen inolako azalpenik eman gabe –aurreko astean ELA eta LAB kalean geunden elkarrekin–, eta Kutxa bank pribatizatuko da erabaki horretan edukirik eta parte-hartzerik izan gabe. Orain zementugileen ordezkari den *Tea party* gipuzkoarrak desegin du aurreko guztia –Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzekin egin dutena ikusi besterik ez dago–, baina horrek ez du bihurtzen Bilduren erreforma fiskala *super-erreforma* fiskalean. Ez eduki, ez parte-hartze.

Patronalak parte-hartzeaz duen ikuspegia ere ez duzue begiko.

Ohituta gaude eskuinari entzuten demokraziaren legitimitatea parlamentuan amaitzen dela. Urkulluk dio herri honetan "administrazioa, enpresak eta pertsonak" daudela. Hau da, haien ustez antolakunde kolektiboek ez lukete botere publikoaren eta herritarren arteko erlazioan eragin behar, ezta enpresarien eta langileen artekoan ere. Horretan bat egiten du patronalarekin. Ezkerrek hausnartu beharko luke ea zein izan behar duen harreman horrek.

Herritarren artean mugimenduak hasi dira prekariedade eta eredu neoliberalaren aurrean alternatibak eraikitzeko: ekonomia sozial eraldatzailerako ekimenak, proiektu autogestionatuak, kooperatibak txikiak... Nola kokatzen zarete hor?

Ezin ditugu gauzak bakarrik egin. Gu Al-

ternatiba ekimenaren sustatzaile gara, lan egin behar da sindikatuaren eta mugimendu sozialen artean harremana sendotzeko.

Gertutasunik nabaritzen duzue?

Batzuetan garapen maila desberdina sumatzen dugu hainbat esparrutan, baina normala da. Nolanahi ere, jendea ez da preseski lanean hasten sindikatua non dagoen galdezka, asko konplikatu zaigun mundu bat da, eta ez badugu branka jartzen errealitate horien norabidean, egoera begetatiboan geratuko gara. Horretarako sindikatuak konplizitate handia behar du bere militanteekin.

ARGIari Mozal Legea ezarri izana salatu zenuten eta elkartasuna adierazi. Horrelako lege injustuei aurre egiteko ELAren ustez zein da bidea?

Erantzunak soziala izan behar du. Guk Barne sailburuarekin bildu nahi izan genuen; gauza bat da legeak esaten duena eta bestea instituzioek zer egiten duten. Bilera horretan jakin nahi genuen hain lege basatia nola aplikatuko zuten, ez baitago formazio-protokolorik ertzainei azaltzeko funtsezko eskubideak ari garelako erabiltzen. Baina sailburuak ez gaitu hartu; arrasto autoritario bat dago eta distantzia gero eta handiagoa.

Halako kasuetarako desobedientzia da gero eta gehiago aldarrikatzen den ekinbide zibila. Sindikatu batek, greba eta mobilizazioetatik harago, zer egin dezaieke bide hori urratzeko.

Desobedientzia zibila oso garrantzitsua da estatuaren estrategiari aurre egiteko. Gu aztertzeke prest gaude, baina desobeditzeko koltxo soziala behar duzu atzean, bestela gauza anekdotiko bat izateko arriskua du, eta desobeditzen duen jende guztiarekiko errespetuz diot.

Baina lan arloan nola praktikatu daiteke?

Esaterako, patronalak eta gobernuek hitzarmenak ezartzeko bermeak sinatzeari uko egin eta "hori da dagoena" esaten dutenean, guk ez dugu onartzen. Hori desobedientzia ekintza bat da. Ez duzu ametitzen sindikatuaren xedeak botere ekonomikoak erabakitzea, eta hortik aurrera antolakuntzari zentraltasun osoa ematen diozu, badakizulako horretan oinarritzen zarela. ■

BAIETZ BA, GASTEIZEN AURKITUKO DUZULA NOREKIN EGIN EUSKARAZ

Rikardo Arregi Diaz de Herediak gogoan du gasteiztarra eta euskalduna zela esaten zuenean nola galdetzen zioten ea non zituen behiak eta ardiak. Baserritarra behar zuen izan, ezinbestean. Ane Pedruzo Redondok ez du ezagutu ere egin garai hori. Badaki beti ez diotela euskaraz erantzungo, eta batzuetan erantzun txarrak ere jasoko dituela, baina lehen hitza euskaraz egiten tematuta dago. Biek –beste askoren artean–, euskararekin dituzten bizipenak kontatu dituzte ahotsak.eus proiektuak landu duen “Gasteizko euskararen ahotsak” bideo sortan. Ondoko lerroetan elkarrizketetako pasarteak dituzue.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: ALEX LARRETXI

RIKARDO ARREGI DIAZ DE HEREDIA (1958), EUSKARA IRAKASLEA, IDAZLEA ETA POETA

“Arazoak, gehienbat, Gasteiztik kanpo ditut. Gasteizen denda batera sartu eta gehienetan ez zait bururatzen euskaraz hastera, edo behintzat orain arte ez. Egun militantea baduzu egiten duzu, baina normalean ez.

Donostiara joaten naizenean, pentsatzen dut jende guztiak euskaraz hitz egingo duela eta makilkada handienak Donostia bezalako hirietan izan ditut. Lekuren batera joan, euskaraz hitz egin, eta erantzutea ‘gastelaniaz’, edo erantzun txarra jasotzea. Behin taberna batera sartu nintzen udan, egia da udaz jantzita nengoela, eta tabernakoa ingelesez egiten hasi zitzaidan zuzenean, eta euskaraz erantzun nionean, harrituta gelditu zen.

Iruditzen zaizu jende guztiak ulertu behar dizula euskaraz eta gero konturatzun zara ez dela hala. Gasteizen ez litzaidake arraroa egingo, baina Donostia batean edo Zarautz batean deserosoa iruditzen zait.

Ez zaizu gertatu gasteiztarra zarela esan, euskalduna zarela esan, eta harridura sortzea?

Bai, bai, edo hemengo jendeak pentsatzea ez naizela Gasteizkoa, edo ez naizela arabarra. Nire lehen deitura Arregi denez, ‘pentsatzen nuen zu...’, Gasteizkoa naiz! Kutxi kalekoa! Nire gurasoak patateroak dira, abizen guztiak dira de Zarate, eta abar eta abar. Jende askok, eta batez ere Gasteiztik kanpo, azterketa botaniko-geologikoa egiten dizu esaten duzunean gasteiztarra eta euskalduna zarela, ea landare arraro hau nongoa den, zure gurasoak, zure amona, zure ez dakit zer... Normalean horrelakoak ez ditut erantzuten. ‘Gasteizkoa zara?’ Bai. ‘Eta euskalduna?’ Bai. ‘Eta zure ama...’, ez dut erantzuten, gustu txarrekoa iruditzen zait. Galdetuko dizut nik zure ama zer den, zure aita zer den... familiako gauzei buruz?

Jende askok, Gasteiztik kanpo, hemen euskararena gauza arraroa dela pentsatzen du eta 20.000 euskaldun egongo dira. Igoal zure herrian baino euskaldun

gehiago dago Gasteizen. Jende batekin haserretzen naiz. Egia da jende asko bizi dela, eta hizkuntza nagusia ez dakit zein dela, eta kalean arabiera, urdua edo gaztelania entzuten dela.

Jarrera desberdina zen lehen eta orain?

Garai batean, adibidez 80ko hamarkadan, euskaraz hitz egitea oso gheztiztuta zegoen, Alde Zaharrean, Kutxi kalean... Orain ere arrasto hori badagoela uste dut.

Lehen adibidez, lagun batzuekin hara joaten nintzen, baina ez zitzaidan Kutxi kalea gehiagi gustatzen, euskaraz hitz egitea-eta bai, baina Zapateria kalean edo gauez Pradan jartzen zuten musika gehiago gustatzen zitzaidan. Hor nabaritzen nuen. Jendeak euskalduna zinela zekienean behiak edo ardiak zure atzetik etorriko zirela pentsatzen zuen. Barkatu, baina ni Gasteizkoa naiz. Behiak ikusi ditut, egia da nire gurasoak herrietakoak zirela, baina hemen bizi ziren. Lehen jende askok lotzen zituen euskara eta ruralitatea. ‘Behiak?’, eta nik, ‘ze behi?’. Euskaraz egiteak ez



“Gasteiztik kanpo, azterketa botaniko-geologikoa egiten dizu jendeak esaten duzunean gasteiztarra eta euskalduna zarela”



“Erantzun txarraren beldurrez, ez dugu egiten euskaraz askotan. Ez badugu egiten, ez dugu jakingo erantzun txarra edo ona jasoko dugun”

nau baserritar egiten. Orain, beste aurreiritzi mota batzuk egongo dira, baina hori ez”.

ANE PEDRUZO REDONDO (1985), OIHANEDER EUSKARAREN ETXEAN KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

“Urte pare bat edo hiru daramatzat den-detara eta tabernetara noanean lehenengo hitza euskaraz egiten, saiatzen naiz behintzat. Oso sorpresa politak izaten dituzu. Joan okindegira, lehenengo hitza euskaraz egin, eta konturatu zure atzeko gizonak ere entzun duela eta hark ere euskaraz egin duela. Kristoren poza da. Mikroan, baina eragiten ari zara. ‘Ez dizut ulertzen’ ere esaten dizute. Ehuneko ehunean euskaraz bizitzea ez da erraza, baina gero eta errazagoa da.

Batzuetan ez duzu egin nahi, nekatuta zaudelako, edo haserre, eta ez duzu gogorik horrelako batean sartzeko. Dena dela, poztasunak gehiago ematen ditu atsekabeak baino.

Jarrera txarrak ere topatzen dira, baina oso gutxi dira gaur egun. Bestelakoak

entzuten ditut: ‘Sentitzen dut, gustatuko litzaidake’ edo ‘Nik ezin izan nuen ikasi’, edo ‘Ze ondo, zuek egiten duzue!’. Horrelako jarrera asko daude. Poza ematen du eta horrelako elkarrizketa bat izan dezakezu: ‘Agian orain ez, baina poliki-poliki, ez kezkatu, etorriko da unea’, ‘Ez, orain helduegia naiz’, ‘Inoiz ez da berandu’. Agian, ez doa inora, baina polita da ikustea jendeak horrela pentsatzen duela. Horregatik esaten dut potentzialitatea dagoela, horrelako jarrerak daukelako. Zaila da, baina ez ezinezkoa, eta gero eta errazagoa izango da.

Erantzun txarraren beldurrez, ez dugu egiten askotan. Ez badugu egiten, ez dugu jakingo erantzun txarra edo ona jasoko dugun, ez dugu identifikatuko hor egon zitekeen euskaldun berria. Orduan, egin behar da! Ez dut esaten sheriff-aren plakarekin joan behar dugunik. Duela gutxi gertatu zait. Lagun batekin nindoan eta kalean emakume bati zerbait galdetu behar genion. Gaztelaniaz egin genion, itxuragatik. Aurreiritzi absurdua izan zen, eta gainera gaia landuta daukagu, TELP tailerra egina... eta

emakume hura euskalduna zen! Lezioa eman zigun hark.

Inori ez zaio gustatzen erantzun txarra jasotzea, eta zer egun duzun eta nola zauden, agian ez da gehien behar duzuna momentu horretan, baina ondo pentsatuta... arazoa ez da zurea, berea da. Ez daki hemen ofiziala den hizkuntza, mundua ikusteko beste modu bat galtzen ari da, nirekin enpatizatzeak aukera galdu du, eta ez naiz hasiko eztabaidan, ez dudalako uste maila berean eztabaidatzeko moduan gaudenik.

Lehengoan tabernan laranja zukua eskatu nuen eta tabernariak: ‘Zer?’ eta nik ‘la-ran-ja-zu-ku bat, la-ran-ja-zu-mo’, eta berak: ‘Nahi baduzu txineraz egingo dizut!’. Berotzen hasi eta esaten diozu, ‘baina hemen ez da txineraz hitz egiten, eta euskaraz bai, eta esan dizut la-ran-ja (naranja gaztelaniaz), barkatu baina hori ulertzen da. Eta badakizu zer? Ez zaidazu ezer atera, ez da ezer gertatzen, eskerrik asko, agur’. Ondoko tabernara joango naiz, zenbat taberna daude Gasteizen?. Egun ona duzunean horrela ari zaitezke. Uste dut merezi duela”. ■



Karrazkilloa (*Rhamnus alaternus*).

TATO GRASSO-CC BY SA

Gorentasunaren katarsia



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Urteak dira lagun baten aitak karrazkilloa aipatu zidala, *Rhamnus alaternus*. Ez nuela ezagutzen, eta berak: "Motel, motel, ezagutuko ez dek ba! Basoan ugaria dek oso; zumalikarra baino hostaje itxiagoa eta sarriagoa dik, hosto txiki gogorrek, neguan erortzen ez direnak". Eta ni ezin jabetu. Karrazkilloaren aurrean "hau karrazkilloa dek" inork esan gabea ni. Nik behintzat honela ikasi izan dut, landarea muturraren aurrean dudanean; horrela ikasitakoak ez zaizkit berehalakoan ahazten.

Eta kosta zitzaidan karrazkilloa kaskezurrean sartzea; ez baita hain ugaria, eta bakoitzak bere karrazkilloa du. Gure herrian oso gaitz zabaldua da; landare batek izen ugari izan ditzakeen era berean, izen batek landare asko ditu. Hau da, eromena. Eta zerbait argitze aldera hitzen eta izenen dantzan hasten bazara, kontuz, "Iratiko Boli Dorreko Gorentasun" ugari dago. Ekin diezaiogun ba dantzari.

Nire ustez, karrazkilloa *Rhamnus alaternus* da. Gaztelaraz, "aladierno" dute izen nagusizat, baina "carrasquilla" eta

"chapparro" ere deitzen diote. Gure txaparrotik dator, nonbait, beraiena; Españolaren Erret Akademiak hala dio, behintzat. Gure karrazkilloa espainolezko "carrasquilla"-tik etorriko da, noski. Beraz, hizkuntzalarien basoan sartzen gara, buradar eta belarri.

Karrazkilloari "txorbeltza" ere deitzen zaio. Oro har, horiek dira erabiltzen diren izenak. Zenbait lanetan, izen hauek ere jaso dira beretzat: burubiotea, murrubiotea, girgirioa, burgia, zumela, zumelika, zemerika, zumalikarra, zumalakarra eta zinurria. Nik aurkitu ez dudanean besteren bat ere izango du... Saltsa eta dantza izugarri dago. Karrazkilloa, gurbitza (*Arbutus unedo*), zumalikarra (*Rhamnus frangula*) eta zenbaitek zuandorra (*Cornus sanguinea*) ere nahasten dituzte. Landareak ez, beraien izenak baizik; horra saltsarako musika.

Badaezpada, karrazkilloaren urak odola mehetzen du. Fruituak beherakoa eragiten du, dosiaren arabera beldurgarria, agidanean: Font i Quer botanikari katalanak zioen eran, "inoiz ez du huts egiten". Kontuz, beraz, bere izenaren bila, Gorentasunen bat abiatu eta dasatzea bururatzen bazaio... Hitzen katarsia, gorputzean katartikoa. ■



Kala

LORE
APAINDURAK

Paisajismo zerbitzua
Terraza eta lorategiak diseinatzea

San Frantzisko, 24 • 20870 Elgoibar
Tel: 943744516



L O R E D E N D A

KALE NAGUSIA, 70 • IRUÑA
☎ 948 225 179 • lisloredenda@hotmail.com



Manex
KANPALEKUA

64310 Senpere
☎ 05 59 54 13 42
camping.manex@wanadoo.fr
www.campingmanex.com

PYRÉNÉES ATLANTIQUE
HOTELA



64310 SENPERE

T. 05 59 54 02 22 • hotel-pyrenees@wanadoo.fr
www.hotel-pa.com

"BURBUNAK ETA ETSAYAK"
PROIEKTUA

Natura eta hizkuntza, soka bereko bi puntak



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

"Bilketa lanak egiten hasten garenean, normalean, zerbait galtzera doala sumatzen dugulako da. Euskalkiak biltzeko joera badago, eta *Burbunak eta etsayak* proiektua ere testuinguru horretan kokatzen da". Naturaren gaineko Hernaniko ahozko ondarea biltzeko asmoz abiatu zuten proiektua Dobera Euskara Elkartek eta Aranzadi Zientzia Elkartek. Euskalkien galeraz gain, naturaren ezagutza eta jakinduria ere galtzen ari zirela ikusi zuten Eñaut Agirre filologo (Dobera) eta Iñaki Sanz-Azkue biologo (Aranzadi) hernaniarrek. Horrela, dokumentalari ekin zioten Joxean Ruiz kameralari eta Jon Mari Beasain editorearekin batera. Filma udaberrian aurkeztu bazuten, etorkizunera begira bildutako materialarekin liburu bat egitea dute helburu.

Euskalkien balioak

Hizkuntzaren ekologia asko hitz egiten den garaiotan, euskara barruan berdina planteatu behar litzatekeela uste du Agirrek: "Euskalki bakoitzak gure hizkuntzari asko ematen dio, eta beraz, gure helburuetako bat ere bazen tokiko euskalkien garrantziaz ohartarazi eta horri balioa ematea". Ildo horretatik doa izenburua ere: *Burbunak eta etsaya* Hernanin xomorro berbera izendatzeko erabiltzen dituzten bi hitz dira (argazkian).



Naturaren hiztegi zabala

Egindako elkarriketetan 350 animalia eta landare espezieren izenak bildu dituzte Agirrek eta Sanz-Azkuek. Espezie horietako askok, gainera, izen bat baino gehiago dituzte, baserri batetik ondokora aldatzen direnak. "Txori batek, adibidez, sei izen ditu Hernanin", azaldu digu Agirrek. Naturaren eta hizkuntzaren arteko lotura nabarmena da, filologoaren ustez: Naturarekiko harreman hurbilagoa duenak, ezagutza handiagoa duenak, hiztegi aberatsa du ikusten duen hori adierazteko.

Gaur egun, bistan da hiriari lotuago eta naturatik urrunago bizi garela. "Lehen landareak eta animaliak egunero ikusten zituzten. Orain beste bizimodu bat dugu, eta ondorioz beste hiztegi bat erabiltzen dugu", dio Dobera elkarreko kideak.

Pentsa litekeenaren aurka, ordea, gazte askok oraindik "harritzeko moduko ezagutza" dutela ikusi dute proiektuaren egileek, eta hiztegi guzti hori errekuiperatzeko interes handia somatu dute gainera. Bada etorkizunik, beraz. Maialen Lujanbio bertsolariak proiektuaz esan zuen bezala, "txori guztiak txori, arbola guztiak arbola eta zomorro guztiak zomorro diren garaiotan" polita da jakinduria hori jasotzea. Zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago bizitzen, maitatzen dugulako ingurua! ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburuak**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
t @bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Maiatzak 3: Eskoriatza

Zaldibar antzokian, 18:30ean.
Udalak antolatuta.

Maiatzak 4: Orkoien

Auzalar ikastetxean, ordua zehazteke.

Maiatzak 13: Baliarrain

Udaletxean, 19:00etan.

Maiatzak 14: Busturia

Madariaga dorretxean (EAEko Biodibertsitate Zentroa), 11:30ean.

Maiatzak 15: Arama

Lekua zehazteke, 12:00etan. San Isidro eguneko ospakizunen barruan.

Maiatzak 17: Mañaria

Liburutegi zaharrean, 18:30ean. Kultur Astearen barruan. Udalak antolatuta.

Maiatzak 19: Altza

Tomasene Kultur Etxean, 19:00etan.
Bizarrain Euskara Elkartek antolatuta.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus
☎ 943 371 545

MAIATZAK 1, ETXE-ALDAKETEN EGUNA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

New York, 1820. Hiriko araudiak lege berri bat jaso zuen: beste datarik zehaztu ezean, etxebizitzaren alokairuen kontratuak maiatzaren lehenera arte egongo ziren indarrean. Itxuraz, egun horretan kontratuak eten eta, beraz, etxez aldatzeko ohitura lehendik zeto-rran, eta arauak fenomeno ofizialdu besterik ez zuen egin. Batzuek diote kolonizatzaile herbeheretarrak egun horretan iritsi zirela Manhattan uhartera eta horregatik aukeratu zela data; beste batzuek, Ingalaterran ospatzen zen *May Day*-ak eragin zuela erabakia. Kontua da “etxe-aldaketak egun bakarrean egitea ohitura zaharra” zela, “hiria txikia zen, biztanleak urriak ziren eta gehienak etxe berean urte luzez bizi ziren garai-koa”, John Pitard New Yorkeko Elkar-te Historikoaren sortzaileetako batek 1832an edo 1833an Eliza alabari gutun batean azaldu zionez.

Hiriaren oparotasun biziak biztan- le berri samaldak erakartzen zituen. Hainbeste jendeak bizitokia izan zezan, etxebizitzaren eraikuntzak eta alokairuen merkatu espekulatiboak nabarmen egin zuten gora. Hala, alokatzaileek errenta neurritz kanpo igotzeko aprobetxatzen zuten maiatzaren leheneko legea, eta maizter askok urtero arrazoizko pre- zioan beste etxe bat bilatu behar zuten. Denek egun berean egiten zuten aldaira.

Goizeko 9etan hasten zen gurdien joan-etorri nahaspilatsua. Konderri-



Urte askoan maiatzaren lehena etxez aldatzeko eguna izan zen New Yorken. Kaosak hartzen zuen hiria egun hartan.

HARRY T. PETER BILDUMA

ko milaka orgazain biltzen ziren hirian, egun bakarreko pagotxaren bila. Altza- riak batetik bestera garraiatzeko eskaera gero eta handiagoa zenez, haiek ere pre- zioak puztu zituzten. Hainbat astetako jor- nala ordu gutxi batzuetan irabazteko joan-etorri asko egin behar zituzten, gai- nera, eta presak kaosa areagotu zuen.

Frances Trollope idazle ingelesak ho- nela deskribatu zuen anabasa: “Maia- tzaren 1ean New Yorkeko populazio izu- rritik ihesi ebakuatzen ari direla dirudi”. Davy Crockett abenturazaleari *moving day*-ak iritzi kontrajarriak eragin ziz- kion 1834an: “Broadwayera itzuli gine- nean, hiri osoa kalamitate latz batetik ihesi zihoala iruditu zitzaidan (...) Jo-

lasean daudela dirudi, dibertimendu hutsez aldatzen direla etxez”. George Templeton Strong abokatuaren arabera: “Hiria ez dut sekula ikusi halako egoera kaotikoan. Etxeek barrenak kalean hus- ten dituztela dirudi. (...) Zibilizazioaren aro nomada eta migratzailetik ez dugu aurrera egin, Tartariako estepako behi- zainak bezalakoak gara”.

XX. mendeko lehen urteetan, milioi bat inguru newyorktar aldatzen ziren etxez maiatzaren 1ean. Baina bi mundu gerren ondorengo estualdiek ohituraren gainbehera ekarri zuen. 1945ean *New York Times*-ek legea indargabetu zutela jakinarazi zuen: “Etxebizitza eskasiak etxe-aldaketaren eguna ezabatu du”. ■

Neandertalak berriro hitz egiten hasi dira 30.000 urte eta gero

Orain dela hilabete batzuk aurkitu zuten Neandertalgo gizakiek, guk bezala, len- goaia garatzeko funtsezkoa den FOXP2 genea zutela. Hitz egiten zutela baieztatu- ta, nola hitz egiten zuten jakin nahi izan du Floridako Unibertsitateko Robert McCarthy antropologoak. Frant- zian aurkitutako hiru neandertalen arrastoak

xehe aztertuta, eta Phil Lieberman hiz- kuntzalariaren laguntzaz, hominido ho- rien ahots traktua berregitea lortu du eta, sintetizadore bat eta ordenagailu bat era- bilita, haien ahotsa simulatzen hasi da.

New Scientist aldizkarian argitaratu- takoaren arabera, neandertalek egiten zituzten soinuak ez ziren gizaki moder-

noarenak bezain garbiak eta zehatzak, eta bokalak modu zakarragoan ahoska- tzen zituzten; itxuraz, “igelen edo giza- kien korroken antza” zeukaten soinuak.

Oraingoz, McCarthyren “neandertal sintetikoak” E letraren soinua besterik ez du egiten, baina antropologoak esal- di oso bat esan dezan lortu nahi du. ■

LA FÊTE EST FINIE DOKUMENTALA EUSKARATU DU ARGIAK

Donostian festa hasi besterik ez da egin



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Burura datozkit Herreran turista *chicak* erakartzeko zentro komertziala, Loio-lako bizilagunek puntako ikuskizunez gozatzeko antzoki ederra, edo Alde Zaharrean euskal gastronomia modernoarenekin esperimentatzeko gune berezitua. Kulturaren aitzakian gerturatuko diren bisitarien begietara itxuratu beharko genuke pixka bat hiriburua, ezta?

Antzerako zerbait egin zuten Marseillan 2013an, Kultur Hiriburutzaren urtean. Total, zer egingo dugu, bada, erdi utzita dauden auzo zaharkituekin? Atzeritar txiroak erakartzeko bakarrik daude gune horiek, eta gu, hiriburuko jende "garbia" dirua galtzen ari gara auzo horietan eraiki ahal eta egiten ez dugunarekin.

La fête est finie (Festa amaitu da) dokumental frantsesean ondo azaltzen dute Marseillaren historia hori, 2013ko Europako Kultur Hiriburutzak ekarritako transformazio urbanistikoarena, hiriarren paisaia aldatetarena, betiko portu industrialak turistak paseatzeko gune bilakatzearena, auzo zaharrak hustu eta bizilagunak leku oraindik-eta baztertutara desplazatzeara, bazterretatik hiriarren erdigunera datorren jendea zaintzeko kontrol polizialen areagotzearena... Nola zen hori? Ah, bai, gen-tri-fi-ka-zi-o-a.

Troiako zaldiairekin egiten duen konparaketa gustatu zait asko: Europako



Kultur Hiriburutza opari eder bat bezala entregatzen dizute, baina behin hirian sartutakoan...

Nicolas Burlaud zuzendariak oinarritzko errekurtsioekin osatutako dokumentala euskaratu du ARGIAk, Donostiako Kultur Hiriburutzaren inguruan eztabaida sustatzeko sortutako *Donostiaren 2016 ertzak* egitasmoaren barruan. Antiguu auzoko Txantxarreka Gaztetxean egin da lehen emanaldia, baina ez da bakarria izango; eta asko Donostian bertan eskainiko badira ere, herri guztietarako da baliagarri, kulturaren eta kolpe urbanistikoaren gaia mahai gainean jartzeko. ■



ARGIA EGUNA URRIAREN 1EAN, ONDARROAN

Baditugu lekua eta data 2016ko ARGIA EGUNA ospatzeko: Lea-Artibaiaren izango da, Ondarroan, urriaren 1ean. Dagoeneko harpidedun zein eragileetako ordezkariekin hainbat bilera antolatu ditugu datozen asteotarako eskualdean.

- **Apirilaren 28an, Markina-Xemeinen:** Uhagon Kultur Etxean, 18.00etan.
- **Apirilaren 27an, Mutrikan:** Emakume Etxean, 17.00etan.
- **Maiatzaren 4an, Ondarroan:** Zine Zaharrean, 16.30ean.
- **Maiatzaren 6an, Lekeition:** Kultur Etxean, 18.00etan.

ARGIA EGUNA antolatzen lagundu nahi baduzu baina bileretara gerturatzerik ez baduzu, jarri gurekin harremanetan harpide@argia.eus helbidera idatzita edo 943371545 telefonora deituta.

Praktikak egin nahi?

Lau orduko lanaldian ARGIA praktikak egin nahi badituzu, zatoz maiatzaren 4an (asteazkena) egingo ditugun azterketara. Goizeko 10:30ean, bi lekutan egingo dira frogak: ARGIAren egoitzan (Lasarte, Zirkuitu ibilbidea 15) eta EHUKo Leioako campusean (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 11. gelan). Etorri behar baduzu, bidali e-mail bat praktikak@argia.eus helbidera, azterketa bi lekuetako zeinetan egingo duzun adieraziz. Azterketara curriculumak ekarri, mesedez.

Hautatuek praktikak egiteko hiru sasoi izango dituzte aukeran: 2016ko ekainaren 1etik 2016ko irailaren 30era. 2016ko urriaren 3tik 2017ko urtarrilaren 31ra. 2017ko otsailaren 1etik 2016ko maiatzaren 31ra. Garrantzitsua: Nahitaezkoa izango da praktikak egin bitartean uni-bertsitatean izena emanda egotea.

HERRI ZAPALDUEN, HIZKUNTZA GUTXITUEN **KANTUA**

Europa bat-batean egitasmoaren baitan, Euskal Herrian izan dira Kurdistango, Sardiniako eta Kataluniako inprobisatzaileak, bertsolariekin batera abesten. Itzultzaileen laguntzari esker, lau tradiziok, lau hizkuntzak bat egin dute oholtzan.



Dabi Piedra

ARGAZKIAK: DANI BLANCO





Besterenetik gozatzeko eta gehiago ezagutzeko aukera eman digu Nazioarteko Topaketak, eta ezin horri uko egin: Bilbon lehen emanaldia eman ostean batu gara, banan bana, hiru hizkuntza gutxituetako inprobisatzaileekin.



SARDINIAKO CANTADORI-AK **Paola Dentoni: "Gure kantuaren eta sardinieraren biziraupena lotuta daude"**

Sardiniatik etorritako Simone Monni eta Paola Dentoni cantadoriek Stefano Cara eta Michele Deiana ahots laguntzaileekin batera eta *launeddas* musika-tresnaren erritmoan abestu dute Euskal Herrian. Sardinieraren gotorlekuetako bat da *Poesia a bolu'* delakoa, uhartearen berezko kulturaren erakusgarri.

Zer aldaera daude zuen uhartean?

Sardinian bertan ohitura bat baino gehiago dago. Lau aldaera bereizten dira eta guk egiten duguna uhartearen hegoaldean baino ez duzu entzungo. *Mutettu* izena ematen zaio.

Inprobisatzaileen jardunari lagunduz, bigarren ahotsak aritzen dira, soinu grabedun *basciu* eta *contra* abeslariak. Zein da haien funtzioa?

Inprobisatzaileak botatzen dituen bertsoen arteko lotura egiteko balio dute *basciu* eta *contra* ahotsak. *Mutettu longo* izeneko modalitatean are garrantzitsua goak dira, bertsoaldi luzeak izaten direlako eta bigarren ahotsak atalka banatzen dute kontakizuna.

Cantadorien lehiaketa eta topaketak egiten dira, ezta?

Bai, batez ere herrietako jaietan antolatzen dira. Lehen baino gutxiago egiten dira, baina mantentzen direnak indartsu daude, telebistan ere ematen dituzte. Lehiaketetan gehien baloratzen dena, gure kantuaren metafora ondo adieraztea da. Ezarritako gaia edo ar-

gumentua metaforen bidez azaltzea da gakoa. Argumentua euskal bertsolarien ofizioen gisakoa izaten da. Hori guztia metrikari eta errimari eutsita.

Gaur egun, cantadorien ohitura belau-naldiz belaualdi transmititzen da?

Zoritxarrez, atzera egiten ari da. Oso gazte gutxi hasten dira honetan.

Zurekin etorri den beste cantadoria, Simone Monni, gazte-gaztea da, bada.

Bai, dauden gazte gutxi horietatik bat etortzea nahi izan dugu. Gainera, Simoneren kasua oso adierazgarria da, itxaropena ematen digu. Bere etxean italiaraz baino ez zuten egiten, baina aitak eta anaiak inprobisatzaileak atsegin zituzten eta Simonek ikasi egin nahi izan zuen. Hala, pixkanaka, interesa hartzen hasi ziren eta, bide batez, sardiniera ere haien etxera itzuli da.

Cantadorien eta sardinieraren patua elkarri lotuta daudela uste duzu?

Bai, dudarik gabe, gure kantuaren eta sardinieraren biziraupena lotuta daude. Cantadoriak sortzeko, etxean sardinieraz hitz egiten duen jendea behar da. Sardinieraz hitz egiteko ohitura galtzen ari da, batez ere Casteddu, Tàttari eta herri handietan. Sardiniera galduz gero, cantadorien oinarri nagusia galduko da.

KURDISTANGO DENGËJ-AK **Zinar Ala: "Bat-bateko jardunak salbatu du kurdien historia"**

Kurdistanen oso errotuta dago dengbêj inprobisatzaileen ohitura. Poetikotasun handiko bertsoak osatzen dituzte, Alemanian bizi den Zinar Ala dengbêjak gu-



rean erakutsi duenez. Ahoz ahoko transmisioan oinarritutako kultura dutenez, kurdien nortasunari eusteko ezinbesteko tresna dira inprobisatzaileak.

Zer giro edo egoeratan inprobisatzen duzue Kurdistanen?

Batez ere, gauetako ospakizunetan elkartzen dira inprobisatzaileak, musikaz, ardoaz eta bertsoez gozatzeko. Dengbêj bat historiak kontatzen hasten da normalean. Ondoren, beste batek historiari jarraipena ematen dio. Gazteek ere tradizioari eusten diote.

Ezkontzetan ere ohikoak dira dengbêjak. Ezkongaien bertuteez edo familieren poztasunaz abesten dute. Senargaiaren eta emaztegaiaren aldekoak egoten dira eta lehia moduko bat ere sortzen da.

Bestetik, galsoroetan lanean ari direnen artean ohitura da inprobisatzea. Langile batek estrofa batzuk botatzen ditu eta, lurra lantzeari utzi gabe, besteek erantzuna pentsatzen dute.

Kurdien historiaren gordailu ere bazarete.

Esan liteke bat-bateko jardun horrek kurdien historia salbatu duela. Izan ere, gure historia gutxi idatzi da, ahozko kultura da gurea. Dengbêjek pasatu dute gure jakintza belaualdiz belaualdi. Esaerak, antzinako historiak eta abar batzen dira hor eta ederra da estrofetan nola uztartzen diren errimak eta herriaren jakintza.

Inprobisatzaileen ohiturari eusteko plan-gintzarik baduzue?

Kurdien inprobisazioa indarberritu



Argazkietan, ezkerretik eskuinera, Paola Dentoni, Simone Monni, Zinar Ala, Anaís Falcó eta Christian Simelio.

WWW.TRADICIONARIUS.CAT

nahi dugu, baina horretarako erakundeen laguntza beharrezkoa da. Amedeko Udalak (Turkiaren menpeko Kurdistan), adibidez, Kantarien Etxea izeneko egoitza finantzatzen du hiriaren alde zaharrean: Inprobisatzaile zaharrak hartzen dituzte han eta errentatxo bat ematen diete, erretiro-pentsiorik ia ez baitago gure herrialdean. Halako gu-neek asko lagunduko dute dengbêjen ohiturak zabaltzen. Baina, udalez aparte, beste erakundeek ez dute laguntzen, Turkiako Estatuak ez du ezer jakin nahi.

KATALUNIAKO GLOSADOREAK “Elkar ezagutzeko uneak behar dira, baina bi tradizioen arteko fusiorik gabe”

Herrialde Katalanak oso aberatsak dira inprobisazio moldeetan, uharte eta eskualde gehienek beren aldaera baitute. Gure galderei erantzun dieten Christian Simeliok eta Anaís Falcó corrandisten tradizioa ekarri dute Bilboko eta Hernaniko saioetara, Gerard Diezen soinu txikia lagun. Donostiako eta Iruñeko saioetan, aldiz, Ferriol Macip eta Mireia Mena glosadoreak aritu dira. Erreportajeok argazkia Donostiako saio ostean ateratakoa denez, Macip eta Mena dira bertan ageri direnak.

Herrialde Katalanetan dauden inprobisazioen artean, zein da zuena?

ANAÍS FALCÓ: Bat-batekoak tradizio sendoena Menorca uhartean du, hiru abeslari eta gitarra-jole batekin inprobisatzen dute. Mallorcan, aldiz, nola-baiteko berpizkundea izan da, horiek musika-tresnarik gabe abesten dute.

Herrialde Valentziarrean, verseadoreak pentsatzen duen bertsoa kantatzeaz arduratzen da cantadorea. Iparralderago, Ebroko lurretan, joteroaren ohitura dago, jaietan eta ezkontzetan inprobisatu ohi duen gizona, baina orain emakumeak ere badaude.

Azkenik, corrandistak daude, hori da guk egiten duguna. Catalunya Vella delakoan du jatorria, Llobregat ibaitik iparraldera dauden eskualdeetan, alegia. Tradiziozko corrandistek bat-bateko nahiz jarritako kanta abesten zituzten, are gehiago, benetan inprobisatzen zutenik ezin dugu ziurtatu, ez delako horren berri zuzenik jaso. Corrandisten ohitura biziberritu egin da eta orain maiz inprobisatzen dugu.

Euskal Herriaren eta Kataluniaren artean bada lotura berezi bat, politikan nahiz kulturaren. Inprobisatzaileen arloan ere hartu-eman estuagoa aberasgarria litzateke?

CHRISTIAN SIMELIO: Zapalkuntzak batu gaitu eta aprobetxa dezagun hori gauzak elkarrekin egiteko. Euskal Herria inprobisazioaren katedrala da, honelako topaketa gehiago behar dira. Haler, horrek ez du esan nahi Katalunian Euskal Herrikoa zehatz-mehatz kopiatu behar dugunik. Guk badauzkagu gure melodiak, gure estiloa. Elkar ezagutzeko uneak behar dira, baina bi tradizioen arteko fusiorik gabe.

Txapelketarik antolatzen duzue Katalunian?

A.F.: Sariketa herrikoiak badira, baina ez daukate hemengoan oihartzunik. Saba-delleko jaietakoa da handiena, inoiz jen-

daurrean abestu ez dutenak ere igotzen dira oholtzara, jai giroan.

C.S.: Askotan, Euskal Herrikoa kopiatuta sortu nahi dugu lehia. Baina, egia esan, corrandistak ez dauka erronkarako joera hori. Ez dakit zer neurritaraino komeni zaigun Euskal Herriko eredua hartzea, guk badugu geure estiloa. Honen inguruan iritzi asko daude, dena dela.

Umeekin lan egiten duzue tradizioari eusteko?

A.F.: Eskoletan tailerrak egiten dira, baina ez horrenbeste corrandista onak sortzeko, hizkuntza eta gaitasun pertsonalak garatzen laguntzeko baizik. Gure inprobisazioa sorkuntza handiago baten zati da: kantua, dantza eta musika dagoen ekitaldi batean, inprobisatu ere egiten da. Inprobisazioa propio lantzeko saiakerak egiten dira, seguruenez Euskal Herriko eredua hartuta, baina zaila da gainerako elementuetatik bereiztea.

C.S.: Albert Casalsek tesia egin zuen, *Corrandascola* izeneko. Inprobisazioa eskolan ikasteko programa bat proposatzen du, bide batez katalana lantzeko balio duena. *Corrandascolari* esker katalan edo musika irakasle batzuek inprobisazioa ikasgelarako tresna interesgarritzat ikusten dute. Guri ere deitzen digute batzuetan, eskoletan tailerrak eta erakustaldiak egiteko.

A.F.: Umeek badakite zer den corrandista bat, baina zaila da hortik gorako interesa sortzea, ez dagoelako eredurik. Jende gutxi ari gara honetan. Ez dago erreferente indartsurik, Euskal Herrian goi mailako bertsolariak izan daitezkeen bezala. ■

FIKZIOA ETA KAZETARITZA ELKARTZEN DIREN LEKUAN

Kazetaritza eta literatura. Literatura eta kazetaritza. Truman Capotek 'Odol hotzean' idatzi zuenetik 50 urte pasa badira ere, tarteka indar berriz agertzen den eztabaida da: non hasten da bata eta non bestea? Bada biak bereizten dituen muga zalantza ezinik? Galderoi eman zaizkion erantzunei begira jarri gara.



Lander Arretxea Bereziartua
@larretxea

"Kazetaritza informazioa da, objektibotasuna; literatura, aldiz, sormena, fikzioa". Bata eta bestea guztiz kontrako mutur gisa irudikatzen dituzten baieztapenak entzun daitezke oraindik Gartzte Zientzien Fakultateetan. Baina informazio hotz hutsetik harago doazen kazetaritza testuak ugaritu diren honetan, eta literatur generoen arteko mugak ere difuminatu samar ageri zaizkigunean, ohikoa da bereizketa erabateko hori zalantzan jartzea.

Ez da kontu berria. 1966an argitaratu zuen Truman Capote idazle eta kazetariak *Odol hotzean*, Kansasen (AEB) eraildako familia baten kasuan oinarritutako errelatoa. "Fikziorik gabeko nobela" etiketa jarri zion, eta geroztik, eztabaidari heltzen zaion bakoitzean derrigor aipatzen den liburua da.

Ez da gutxitan gertatzen. Dela lehen-gai berbera -hitza- erabiltzen dutelako, dela maiz formatu berean ikusten dutelako argia, aldiro-aldiro pizten da kazetaritza eta literaturaren arteko mugak definitu edo auzitan jartzeko grina. Bai behintzat, batean zein bestean jarduten dutenen artean. Euskal Herrian bertan,

luzea eta oparora da modu batean edo bestean idazle ere badiren kazetariak eta kazetari lanetan aritu diren idazleek osatzen duten zerrenda: Garbiñe Ubeda, Juan Luis Zabala, Arantxa Iturbe, Lorea Agirre, Alberto Barandiaran, Laura Mintegi, Imanol Murua, Danele Sarriugarte...

Muinoari mendi esatea

Zerrenda luze horretako kide da Iñigo Astiz ere. *Berriako kultur kazetaria* izateaz gain, *Baita hondakinak ere* (2012, Susa) poema liburua du argitaratua. Kazetaritza eta literaturaren arteko mugaz galdetuta, AEBetako Robert Laxalt euskal idazle eta kazetariak kontatzen duen anekdota dakar gogora. *National Geographic* aldizkarirako hainbat artikulu idatzi zituen Laxaltek, eta ezadostasunak izan zituen aldizkarirako idatzitako artikulu guztien datuak egiaztatzen zituen ikertzaile taldearekin. Artikulu batean ondorengo paragrafoa idatzi zuen Laxaltek: "1539ko negu amaiera aldeko egun batez, Fray Marcos de Niza fraide esploratzaileak mendi batetik begira jarri, eta urrunean fabulazko Cibola hi-

ria zena ikusi uste zuen". Ikerketa taldekoek telefonoz deitu zuten paragrafo horregatik kexu. "Nizaren egunerokoak errepasatzen aritu gara. Nahiz eta lurrean elurra zegoen, ez gaude ziur benetan negua zenik esan dezakegunik, ez eta ikusleku hori menditzat jo daitekeenik ere". Hori entzunda, Laxaltek kontraproposamena egin zion: "Jar ezazue orduan, '1539ko negu eta udaberri arteko egun batez' begiratu zuela 'muino altu batetik'". Haserretu egin zitzaion ikertzailea: "Lau ikertzaile izan ditut astebetez pasarte horretan lanean, eta zu haien esfortzua gutxiesten ari zara lizentzia poetiko horiekin".

Kontakizun horrek erakusten du, Astizen ustetan, bereizketa egiteko gakoa zein den: "Kazetaritzan ezin duzu muinoa mendi bilakatu, eta literaturan muinoa izan daiteke mendi; kazetaritzan errealtatearekikoa da zure konpromisoa, eta literaturan testuak sortzen duen errealtate edo ahotsarekikoa". Erreportaje literario eta libreenetan ere klabea hori bera dela uste du, muinoari muino deitzea, mendia ederrago geratuko bada ere. "Noski, errealtate guztiak



IRVING PENN

Truman Capoteren 'Odol hotzean' ez-fikziozko nobela etengabe aipatzen da kazetaritzaren eta literaturaren arteko harremanei buruz eztabaidatzen denean.

ez dira muino bat edo mendi bat bezain konprobagarriak, eta, adibide bat jartzearen, lausoa da aldea zure elkar-erizketatu bati erantzun batean begiak malkoz bete zaizkiola susmatzetik, begiak malkoz bete zaizkiola ziurtatu ahal izatera. Halakoetan beti dago arriskua, baina darabilzun lehengaia errespetuz tratatzea da gakoa". Are, gairen bat literatur puntu batekin lantzeko "zortea" duenean, normalean baino murgilketa sakonagoa egiten duela dio, ziurtasun handiagoa behar baitu bere buruari teklatuan libreago aritu ahal izateko lizenzia onartzeko.

Astizen iritzi bertsukoa da Lorea Agirre Jakin aldizkariko zuzendaria ere. Hala zioen, bederen, 2005ean EHUK plazaratutako *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* liburuan bildutako *Kazetaria ez da Jainkoa* artikuluan, artean *Berriako* kazetaria zela: "Idazleak, dena konta dezake. Eta hilketaren lekuan enbara-

zu egiten dion auto bat badago kendu egingo du inori konturik eman beharrik gabe. Idazlea jainkoa baita bere fikziozko erresuman. Pertsonaiak sortu, jantzi, moldatu, hitz eginarazi, hil... edozer egin dezake. Kazetariak, ez. Kazetaria ez da jainkoa, askok hala pentsatuko badu ere".

Postf kizioa: muga hain argi ez dagoenean

Eskuartearen dugun eztabaidari bete-betean heldu dionik bada, Karmelo Landa EHUKo irakaslea da hori. *Kazetaritza eta literatura elkarlanean* artikuluan, bien arteko muga lausoa dela iradokitzen duten hainbat gogoeta bildu zituen. Kazetariaren objektibo izateko gaitasuna zalantzan jartzen duten zenbait aipuz gain, "postfikzioa"-ren kontzeptua zekarren mahai gainera. Bertan azaltzen duenez, lan dokumentala eta literaturaren prozedurak elkarlotzen dituzten

testuak dira "postfikzioa" etiketak barnebiltzen dituenak, eta fikzio-ez fikzio muga zalantzan jartzen dute. Metafora eta konparazio ausartak erabiltzeak ezaugarritzen dituela zioen, eta egunkarietan argitaratu eta bertan toki finkoa lortzen badute ere, literaturaren baliabide espezifikokoak mantentzen dituztela.

Egun Hekimeneko zuzendaria den Alberto Barandiaranen adibidea esanguratsua da. Kronika eta fikzioaren arteko lur nahasietan garatutako hainbat lan plazaratu ditu: *Ez zaigu ahaztu* (Susa, 1998) *Gaizkileen Faktoria* (Euskaldunon Egunkaria, 2000) eta *Post-kronikak* (Elkar, 2009) besteak beste. Lehenengo biak idaztean izandako korapilo eta barne-gatazken berri emateko prestatutako hitzaldian, hala zioen: "Bi liburu hauek

» Informazio hutsetik harago dagoen kazetaritza ugaritu da, baita genero literarioen mugak lausotu ere, bi esparruen arteko harremana berriz pentsatzera bultzatuz

kazetaritza sortu dira. Erreportajeak izan dira sorreran. Liburu bihurtu ziren gero, norbaitek esan zidalako luzatu zitezkeela, merezi zuela artikulua bat baino gehiago: baina baita, nik ikusi nuelako bazegoela istorio bat kontatzeko". Abiapuntu hori izanda ere, liburuok literatura direla defendatu zuen hitzaldi hartan, eta ez dela beldurrik izan behar zenbait kazetaritza lanen literatur izaera onartzeko. "Erreportajeak askatasuna ematen du nahi denaz nahi den bezala idazteko. Sinetsi ezin daitekeena kontatzeko. Alegia, sortzeko. Eta literatura sormen idatzia da, ezta? Zergatik dago horrenbeste erreparatu egun egiten diren hainbat lan literaturaren abizena emateko? Zer da, paperarengatik? Egunkarian ateratzen direlako?". Baieztape borobil honekin amaitu zuen Barandiaranek hitzaldi hura: "Erreportajea genero literarioa da dudarik gabe. Urgentzia zko literatura, alegia". ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Black, lesbian, mother, warrior



Igor Estankona



Audre Lorde

Munduko Poesia Kaiara
Susa, 2016

Eta poeta. Nor da soilik gauza bat, kolorea eta sexua, klasea eta adina, auzoa eta zigorrrez jotako arbasoak: “Eta hemen eserita hausnarrean nabil/ nire buruetako zeinek biziraungo duen/ askapen hauen guztien ondorenean”.

Danele Sarriugarteren gustua, momentu honetan opatzea halako ahots bat... Munduko Poesia Kaiaretan irekitako leiho honetatik sartu da haize bat indartsua: “eta ez nator euria bezala/ gorazarre edo ikur gisa, lurra- ren mesedegarri./ Emakume nator/ ilun eta ireki/ batzuetan gaua bezala abailtzen naiz/ leun eta izugarri/ baina soilik hil behar du- danean/ gero atzera altxatzeko”.

Audre Lorderen (New York, 1934-Saint Croix, AEBak, 1992) poesia identitateari buruzko hausnarketa sakona da. Zentzu horretan, bakoitzaren baitako izpiritu guztien aberastasunari kantatzen dio. Aktibista da, leuna da, gogorra ere bai: afroamerikarren historiak hala erakutsita, mesfidatia du letra, eta bitala eta inkontzienteki askea, oster, musika. Harlemera eroango zaitu, esklabo ontzira igoko zaitu, eliza ezagutuko duzu, sukaldia, iraultza. Audre Lordek idazten du bere sabeleko minaz, baina emakume beltzen mina da egundo lehenengoz kon- tatua. Eta Maya Angelou edo beste batzuen antzera, badauka *blues* bat sakonekoa eta imitatzen zaila, aho zapore gazi gozo bat uz- ten diona halabeharrez irakurleari amaieran. Ez da tristura. Ez da alaitasuna. Bizitza da: “aspaldiko gogortasunaren arrastoek dir-dir dagite izarrek nola/ hiltzen erakusten didate eta temati esaten/ heriotza ez dela gaitz bat”.

Audre Lorde irakurtzeko modu asko dau- de, noski. Politikoa da bat. Bera da ahapaldi- rik ahapaldi poesiaren izate kolektiboa erre- bindikatzen duena. Irakurketak izan behar du finean beltza eta feminista. Bera beltza eta feminista da, eta barrura begira idazten duena ere kanporako da, eta hala egiten du bat gainontzekoekin, arbasoekin, mundua- rekin. Identitatea plurala dela oharturik, Lor- derentzat kondizio desberdinik ez dago, bere izatearen ertzetan egiten du bat zapaldu guztiekin, are zapaltzaileekin ere: “azeri eta oreina/ askan/ ez guztiz elkarrekin/ baina bai bata bestearen manerak/ ikasten”.

Lorde irakurtzeko modu asko daude, nos- ki, eta lirikoa ere bada bat. Sufirimenduaren apologia egin gabe, bide berrietan arakatz, hizkuntza bera eguneratuz eta diskurtsoei buelta emanez lortu du sartzeari antologietan.

Lorde irakurtzeko modu asko daude, nos- ki. Hauxe bat. ■

*Audre Lorde idazle eta aktibista
New Yorkeko Harlem auzoan jaio zen.*



» TELEGRAMA

Babeserako kopiak Goizalde Landabasoren poema liburua oinarri hartuta, ikuski-zuna prestatu dute Landabasok berak, Galder Perezek eta Ane Zabalak. Donostiako Garoa Kultur Laben ikus dezakezu apirilaren 29an *STOP* Zortzi urte pasa dira **Nada Surf** taldeak Bilbon azken aldiz jo zuenetik. Bueltan dira, apirilaren 30ean Bilboko Kafe Antzokian *STOP* **Adolfo Arrieta** zine zuzendari *undergroundari* buruzko zikloa eskainiko dute Bilbao Arten. Apirilaren 28an egingo dute lehen saioa eta lau film proiektatuko dituzte *STOP*

» MUSIKA

Taxuzko requiema



Montse Auzmendi

Messa da Requiem

VERUM ORKESTRA SINFONIKOA

OLBEk antolatutako kontzertua.

Zuzendaria: Francisco Ivan Ciampa.

Bilboko Operaren Abesbatza.

Zuzendaria: Boris Dujin.

Bakarlariak: Angela Meade (sopranoa), Dolora

Zajick (mezzoa), Gregory Kunde (tenorea),

Ildebrando d'Arcangelo (baxua).

Euskalduna Jauregia. Apirilaren 16a.

Aurrera doa OLBEren aurtengo abonuzikloa. Oraingo honetan, ohikoa den opera eskaini beharrean, orkestra, abesbatza eta bakarlarienezako titulu ederrenetako bat, *Tutto Verdi* zikloaren barruan: *Messa da Requiem* famatua.

Holako obretan, requiemetan, beti aurkitzen dugu musikatik harago doan emozio berezia. Fauré-ren requiema, Mozartena, hunkigarriak dira, gure barruko sentsibilitatea ukitzen dute. Verdiren réquiemarekin, ordea, eta duen sakontasuna ukatu gabe, beste sentimendu bat sortzen zaigu: alaitasuna eta indarra. Heriotzaren alderdi malko isurlea potentziatu ordez, itxaropena, bakea, baikortasuna irudikatzen du lan honek. Eta musika ezin ederragoa eskaintzen du, dudarik gabe.

Esan genezake OLBEk ekarritako bertsioa luxuzkoa izan dela, parte hartu duten bakarlariak primerakoak direlako: Gregory Kunde estatubatuarra behin baino gehiagotan entzun dugu OLBEren emanaldietan. Denboraldi honetan Renato des Grieux izan da *Manon Lescaut* operan, orain dela oso gutxi. Aurrekoetan bezala, emanaldi

distiratsua egin zuen, bere ahots liriko spinto txispaduna erakutsiz, benetan ondo. Bere ondoan, Dolora Zajick mezzosoprano handia entzun dugu. Abeslari hau Verdiren roletan espezializatua dago, beraz, espero genuen bezala, ez zigun huts egin. Halere, azkeneko aldiz entzun nuenetik, aldatuta aurkitu nuen bere ahotsa, proiektzio gutxiagokoa, ez hain boteretsua. Angela Meade sopranoak, lehenengo aldiz Bilbon, txunditu egin zuen publikoa, merezimendu osoz. Ahots distiratsu, boteretsu eta segurua du soprano honek. Aitzakia bakarra, zertxobait mekanikoa iruditu zitzaidala bere abesteko era. Eta, bakarlariekin amaitzeko, zinez interesgarria izan zen Ildebrando d'Arcangelo baxuaren interpretazioa. Erraz abesten du, erregistro guztietan aise mugitzen da, segurua, eta tinbre eder eta haragitsua du.

Bilboko Operaren Abesbatza, Boris Dujin-en batutapean, beti bezala, xuxen aritu zen, ongi, indartsu. Agian pasarte indartsuetan erakutsi zuen bere kalitatea, *Dies Irae* boteretsuan bezala, baina fineza gehiago behar zuten unetan ukitu mistikoa falta izan zitzaien. Pena. Gauza bera esan genezake Verum Orkestra Sinfonikoari buruz (2007an *Verum Bodegas y Viñedosek* sortutako orkestra): ongi bete zuten beren lana, baina, nahiz eta Francisco Ivan Ciampa zuzendaria saiatu, ez ziren iritsi nahi genuen kolore orkestral bikainera. Halere, saio benetan ona. ■

Francisco Ivan Ciampa zuzendari italiarra



Zuluetarrek

EMANALDIA

"80 zuzenean" jardura zikloaren barnean, apirilaren 15ean Donostiako Ernest Lluch kultur etxean *Derribos Arias* liburua aurkeztu eta taldearen zortzi kantu jo zituzten. Ziklo honen baitako azken ekitaldia maiatzaren 3an izango da: "80ko pop donostiarra"ri buruz solastuko dira Rafa Berrio, Chelis Lanzagorta, Javi Pez eta Diego Vasallo. Ernest Lluch kultur etxean, 19:30ean.



Fermin Etxegoien
@FETxegoien

"Bazirudien El Huerto-n ginela" esan zuen ikusleetako batek –60 urtetik gorako emakume alargun oso ezaguna Donostian, zeinaren alaba eta biloba ere ekitaldian baitzeuden– *Derribos Arias* taldearen omenezko kontzertu laburra bukatu eta gero, jada Ernest Lluch izeneko kultur etxetik kanpo ginela, Anoetako gau euritsuan.

ETAk hiriaren beste muturrean 1980an leherrarazi zuen pub hura, El Huerto izenekoa, Trinitate Plazan, Donostiako mobidaren zilborra omen zena... eta kontzertutxoaren aurretik aurkeztu zuten *Derribos Arias: Licencia para Aberrar* –Carlos Rego kazetari ourensearrak idatzitako– liburuaren osteko solasaldian, Trantsizioko Kulturaren nolabaiteko aldarrikapena ere entzun genuen, esan nahi baita, RRVaren kitsch-a denaz jabetu aurretikoaz.

Donostia *cool* –avant la lettre– eta zulatuezin hartan, hiritar moderno eta ezin burgesago haien –gure ikuspegi ezinago estereotipatuan– urrezko kabia.



JUAN G. ANDRÉS

Probintziako mukizuontzat, esan nahi dut. Gerora imajinatu ahal izan dut, demagun kontzertuan bertan zen Alejo Alberdi bera, Ivan zine zuzendariarena bezalako villa dekadente batean bizitzen, hura ere Ondarretara begira. Badakizue, Rafa Berriok handik hogeita hamar urtera idatzirikiko kanturako pertsonaiak: nire lagunak, abizenez kargaturiko jende hori.

Groseko musikariak ekin zion erronkari: *Derribos Arias*-en zortzi kanturik onenak –bere ustetan– zuzenean ematea. Baxuan Ikerne Jimenez, Alaskaren ohiko musikaria. Haurdun ageri zen bilbotarra, sekulako bonboaz, irudi post-warholiano ikusgarrian. Gitarrarekin, Iñaki Huarte "Fisuras", *new-wave* eszena hartako klasiko bat, indartsua eta sentibera. Baterian, Zumaiako Nagore Etxabe gaztea, riot-grrrl itxuradun danbor-jotzaile dohatsua.

A-Fluor-ekin hasi ziren, ondoren *Quién hay* entzun genuen. *Derribos Arias* sekula santan sonatu ez zen gi-

san, xuxurlatu zidan Montoiak. Ondoegei, esan nahiko zidan. Sendo nahiz fidel, ene ustetan. Poch zenaren dramaturgian nahastu gabe, baina haren kantuetan zetzan dramari eutsita.



Derribos-en maite genituen dekonstrukzioak oro, hala musikan nola hitzetan. Espainolezko "aberrar" hura, euskarazko "aberri" honetatik aldi berean hain gertu eta hain urrun.

Itxuraz azkenean artikulatu da ezker abertzalearen estetikari buruzko kritika post moduko zerbait, ikus Maia, ikus Gure Esku Dago, baina noski, haren ernamuina egun hain deitoratua ageri den Trantsizioko Kultura delako hartan zegoen. Gertatzen dena da hura guztia oso espainola zela eta hango batzuk, euskaldunak ere baginenez, ba gero isildu egin ginela, folklorearekiko errespetuz. Ezagun denez, salbuespen bakarrenetarikoa, Montoia bera (M-ak).

Baina tira, Berriok berak esango lukeen moduan, *ya qué importa quiénes fuimos* (Este Album, 1971, Warner). ■



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Arturo Elozegi EHUKo Ibaien Ekologia taldeko ikertzailearen esaldi bat irakurriko duzu.




Sudokuak

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.




Azkenak

Koka ezazu erantzun bakoitza bere tokian.
Koloreztatutako laukietako hizkiak batuz bi
garraiobideren izenak lortuko dituzu.



Soluzioak



"Unik ez daukan gizarteak izugarritzko arazoak ditu. Bestalde, garapen jasanarria gero eta errotka zuzalagoa da, gero eta jende gehiago baikara".

Azkenak:

A: Nahigabe, Berheala, Ezinegon, Irrintzi, Ostukada.
(BELAONTZIA)

B: Nolabait, Janzkera, Tipulatx, Mezulari, Parranda.
(TAXIA)

Simona Skrabec. Zubi bat hizkuntzen gainean



Hegoafrikatik iritsi berritan harrapatu dugu PEN elkarteko kidea. Translation and Linguistic Rights Committee izeneko kongresuan izan da, hain zuzen, Afrikako idazle eta kazetariak bizi duten egoera gertutik ezagutzen. Egunerokoaren gogorra ikusi arren, baikor itzuli da: lortu dute herrialde afrikarrekin konplizitate sare bat sortzea.

“Beste ertzean dagoena zu bezain baliosa dela aitortzea da itzulpena”



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Itzultzailea

“Ez da interprete soila, partitura jotzen duena eta kito. Beste kultura bateko ideia, pentsamendu, jarrera multzo bat sartzearen arduraduna zara, eta ahalik eta ondoen egin behar duzu, zure hizkuntzari, zure kulturari ematen dizkiozulako kolpetik aurretik ez zituen osagai batzuk, aberasten duzu, egokitzen. Hizkuntza gaur egungo munduan sartu behar dela esan ohi da. Itzulpenarekin, gaur egungoa den guztia egokitzen da zure hizkuntzara eta horrek egokitzen du zure hizkuntza bera, etengabeko komunikazioan. Hizkuntza baten heriotza oinarrian besteekin komunikatzeko gaitasun eza da. Babatea ez da aski”.

Zer ekarri duzu Hegoafrikatik?

Ez dagoela diferentziarik pertsonen artean, inoiz ez. Benetan gerturatzen bazara bestearengana, askoz gehiago dira partekatzen diren gauzak desberdintzen gaituztenak baino. Eta, afrikarren aldean, iruditzen zait hemen Europan estuegi lotzen gatzazkiola arauari. Lehenengo egiten dugu araua eta gero ikusten dugu ea moldatzen garen.

Eta, moldatzen gara?

Gure arteko kontaktu handiagoa behar-ko genuke, gauzak datozen neurrian konpontzen saiatzeko. Adibidez, erre-fuxiatuen krisian: ahazten zaigu pertsonak direla, gure kidekoak, eta ez zifrak; ez dela besteen arazo bat, gurekin zeri-kusirik ez duena. Ulertu behar da mundua osotasun bat dela, eta denona, ez soilik mugak jarri dituztenena. Eta hori esan beharra dago, ezin gara nekatu.

Hitzak zer egin lezake hor?

Hitzak indarra du, beti egiten du zerbait. Borroka desorekatua da, noski. Harritxo baina ez gara boteredunaren oine-

takoan. Baina ez bada ezer egiten gauzak ez dira desagertzen, hazi baino ez dira egiten; eta infinituki haz daitezke, haz daitekeen bezala erregimen politiko-koen eta giza burmuinaren gaiztakeria.

Mundua ez dago erabakita, beraz.

Batek pentsa dezake baietz, egin behar dena dela egokitzea, zure txokotxoa aurkitzea, bizitzea. Baina argi dago ondo ez dabilen gauza gehiegi dagoela. Etengabeko borroka da existentzia. Eta hori ikusten da zurea ez bezalako errealitateekin kontaktua duzunean. Batzuetan oker dauden iritziak ditugu, ezagutza falta zaigulako. Gure oinarriak errepasatzeko beharra dugu, irekitzekoa, ontzat jotzen genituen gauzak beste egoera batzuetan kalterako izan daitezkeelako. Mundua ulertzen saiatzea prozesu bat da, sekula burutuko ez duguna.

Ulertzen saiatzea ote da itzulpena ere?

Itzulpena ez da praxia, aurretiko jarrera bat da: aitortzea beste ertzean dagoena zu bezain baliosa dela. Diferentia dela, egokitu behar zarela, esfortzu bat egin



"Hitzak indarra du, beti egiten du zerbait. Borroka desorekatua da, noski. Harritxo baina ez gara boteredunen oinetan".

behar duzula ulertzeko. Eta onartzeko: beste arau batzuk onartzeko prest egon behar duzu, askotan zureengandik oso desberdinak izan daitezkeenak. Esango nuke irekiera eta iragazkortasuna direla gakoak.

Asimilazioarekin zerikusi txikia du horrek.

Itzulpena ikusteko bi manera daude. Lehenak baztertzen du publiko orokorrarentzat kaltegarri den guztia. Gehien zirkulatzen duten testuak izan ohi dira, *best seller*-ak. Baina edozein lekutan idatzitako obrak izan daitezke, ez dute tokiko ezaugarriarik. Hori ez da itzultzea. Asimilatzea baizik. Itzultzea da zaintzea arrotz dena obra orijinalean, ulertzea parean zuk ezagutzen ez duzun jendea dagoela, mundua ez duzula menperatzen, ez duzula sekula menperatuko, zabalegia baita. Iristen zara zalantzan jartzera zenituen sinesmen sendo guztiak. Denok behar dugu zerbaitetan sinetsi, erlatibotasun hori zaila da onartzen; baina beharrezkoa, mundua horrelakoa delako.

Eta literatura unibertsala?

Ez da uki ezin daitekeen altxor bat. Etengabeko elkartrukatzea da, kano-naren errebisio konstantea. Tradizioa ez da hainbeste obra bera, obrak hainbestetan idatzi izan dena baizik. Komunikazioak egiten ditu handi hizkuntzak. Eta ikusgarritasuna da besteak ulertzeko gaitasuna. Ez bakarrik haiek gu ikustea, guk haiek ikustea ere.

Ingelesez?

Azken urteotan aldaketa larri bat gertatzen ari da Europako politika kulturalen. Orain denok nahi dugu ingelese, edo frantsesa, denok Frankfurteko feriarara. Diru-efortzu guztiak kanpora itzultzeko bideratzen dira. Baina zure kulturak hortik ez du ezer hartzen. Hartzen du inportatzen duzunetik, handi nahiz txiki, zure hizkuntzan irakur ditzakezun autore arrotz horien-gandik. Bat-batean ez dago txikienganaiko interesik: hain dira txikiak, etxea zikinduko baitigute haien txikitasunarekin.

Handinahiaren konplexua?

Astakeria da, zu handia zara asko uler dezakezun neurrian, zure ezagutzaren eta aniztasunaren neurrian. Politikariak horren garrantziaz jabearaztea ezinezkoa izango da dagoeneko. Baina zure etxera poeta armeniar bat ekartzeak prestigio handiagoa emango dizu, probetxu handiagoa aterako diozu, zure poetak New Yorken inork ikusiko ez duen jaialdi batera eramateak baino.

Zurea itzultzeari utzi gabe, noski.

Bai, baina harreman bat ezarri behar da. Orain dena egiten da diruaren bidez: auskalo ze bilduma prestigiozko, auskalo ze areto arranditsu. Horrek ez dauka batere interesik. Niri interesatzen zaidana da zer esan duten, zergatik esan duten, nola ikusi gaituzten. Hori da ezagutu behar dena. Lasterketa politikoan jakin nahi dute nor den irabazlea, tori medaila. Arrakasta eta porrotaren erretorika horretan erortzen gara. Baina literatura eztabaida konstantea da, zer gertatzen den pentsatzeko aukera. ■



Abian prozesua reality-show bat dela baieztatu du ezker abertzaleak


Ezker abertzaleak jakinarazi duenez, Abian prozesua "reality-show" bat izan da hasieratik eta laster hasiko dira grabatutako materiala emititzen Herriko Tabernarik onenetan. "Soziologia minimo bat egin dugu, jendeak zer kontsumitzen duen ikertu. Eta Euskal Herrian Telecinco nagusi dela jabetu garenez gure komunikazio politikoa goitik behera aldatzea erabaki dugu", azaldu du proiektuaren ideologoe-tako batek. "Helburua, reality ikusienetan bezala, ezker abertzalean pertsona bakkarra geratzea da, lehiakide onena, alegia". Oraingoz bide onean doa prozesua, hasierako 8.000 partaideetatik 3.000 ingurura murritzut baitira lehiakideak. "Kexa-

ren bat jaso dugu sektore ofizialak imunitatea ziurtatuta daukalako proba guztietan. Baina aizue, hau biziraupen-programa bat da, gustatzen ez zaiona ez dadila etorri El Conqui... zera, ezker abertzalera".



SAREAN ARRANTZATUA

Planetak lerrokatzen direnean



Kosmopalestismoa



Mural batekin txorizoak iraindu dituztelakoan hainbat lagun atxilotu dituzte Burlatan

Espainiako Poliziak hainbat lagun atxilotu ditu, beste behin ere, Burlatan mural bat margotzea leporatuta. "UPNko eta PPko kideak iraintzea" leporatu diete atxilotuei. "Txorizo" hitza marra gorri batez zirriborratuta zeukan margolana "politikari esku-luzeen izen onaren aurkako atentatua" da poliziaren ustez. Atxilotuekin elkartasuna adierazteko, muralaren kopiak egin dituzte Euskal Herri osoan. Eztabaida ere piztu da elkartasuna beste era batera adierazi nahi zutenekin. "Erregimenarekin akabatu behar dela diogu, baina gero denak gaude erregimenean. Txorizoa JAN egin behar da, ez mar-gotu", adierazi dio, oso haserre, Gantz Hestebetekobeitia gazteak kazeta honi.



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA
| EKONOMIA SOZIALA
ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA



Ekonomia Sozialean oinarritutako enpresa gara. Langileok gara jabeak eta egitura horizontala eta parte hartzailea dugu. Eragiten jarraitzeko, komunitatea indartu eta kolektiboki jardun nahi dugu, ARGIA osatzen dugun guztion elkartzetik eta inplikaziotik abiatuta.

MAIATZEKO ZOZKETAK



LANKI ikertegiko materiala
(5 saski)

Lanki
lanki.coop



Ondarroako Arrigorri ostatuan egonaldia 2 pertsonarentzat

Arrigorri
arrigorri.eus



Dabilen harriari goroldiorik ez
(5 liburu)

Joxemi Zumalabe
joxemizumalabe.eus



REAS (Ekonomia alternatiboa eta solidarioaren sarea) (2 saski)

REAS
www.economiasolidaria.org

APIRILEKO SARITUAK

EMUNEN IRTEN HIZKUNTZAREN ARMAIRUTIK: GAINZAKO UDAL LIBURUTEGIA (GAINZA), XANTI SAIZAR (TOLOSA), XABI TERREROS (IRUÑEA), GABIÑE GARAI (OÑATI), PILI IKAZURIAGA (LEIOA)
EHEEN MATERIALA: ANTON IDIAKEZ (EZKIO-ITSASO), IGOR ALDALUR (ISPASTER), ENEKO MAIOZ (OREXA), XABIER ZUBIZARRETA (ARRASATE)
KONTSEILUA ETA BAI EUSKARARI MATERIALA: OLATZ GORROTXATEGI (AZPEITIA), JESUS MIGEL ZABALO (GALDAKAO), ANA. M. ZUBIARREMENTERIA (EIBAR)
AZKEN TXORAKIKERIAK LIBURUA: ISABEL RAZKIN (UHARTE-ARAKIL), BITTOR KORTABITARTE (BILBO), BLANCA BEITIA (GASTEIZ)

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com